

## Conxita taldea
Espaloian jo dute kataluniarrek
KULTURA, 26

## UDA taldea hirugarren dago sailkapenean
Aloña Mendik preferente mailako lider izaten jarraitzen du
KIROLA, 12-13

## Fiorella Faltoyano
Haren ibildideaz berba egin digu
KULTURA, 2021



ASTELEHENEKO
# Goienkaria
ASTELEHENA • 2006ko martxoaren 6a • 2. urtea • 92. zenbakia • 0,90 euro

# Ibarreko hamar ordezkari makina-erremintaren bienalean

*Gaur irekiko ditu ateak makina-erremintaren 24. bienalak Barakaldoko BECen*

Hitzordu garrantzitsua du makina-erremintaren sektoreak gaur BECen. Izan ere, makina-erremintaren 24. bienala abiatuko da. 33 herrialdetatik etorritako 1.752 merkataritza-izen batuko dira, 757 saltokitan.

Debagoieneko hamar ordezkari ere han izango dira euren berrikuntza eta produktuak erakusten. 2-3

**1.752 FIRMA**
**Bost kontinenteetatik (33 herrialde) etorritako 1.752 firma batuko dira 24. bienalean**

**EUSKAL HERRIKO ASKO**
**Feriako saltoki gehienak Euskal Herrikoak dira: 289, hain justu ere; tartean, Debagoieneko 10 ordezkari**

**GUNE ESTRATEGIKOA**
**Gune estrategiko gisa aurkeztu dute bienala. Izan ere, Europan sektoreak suspertzea lortu du**

**HILAREN 11RA ARTE**
**Milaka bisitari espero dituzte antolatzaileek; hilaren 11ra bitartean egongo da zabalik**

## Mª Jose Gilek urrezko bi domina Espainiako Txapelketan

Zapatuan Oviedon jokatutako Beteranoen Espainiako Txapelketan eskuratu zituen Gil arrasatearrak urrezko dominak; 3.000 eta 1.500 metroko lasterketetan. Azkeneko horretan, gainera, Espainiako errekorra hautsi du 9 minutu eta 27 segundorekin. 19

## Emakumearen Nazioarteko Eguneko agerraldiak bihar eta etzi

Martxoaren 8a gogoan, kale agerraldia egingo dute bihar Bergaran. ESK sindikatuak deituta eskualdeko manifestazioa egingo dute Bergarako plazatik irtenda, 18:00etan. Etzi, berriz, eguaztena, Arrasaten egingo dute manifestazioa, Arrasateko Emakumeen Kontseiluak deituta; 19:00etan, Seber Altubetik.

Bestelako ekintzak ere antolatu dituzte Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan. Arrasateko ikastetxeek, esaterako, hezkidetza jaialdia egingo dute bihar Uarkapen. 5

## Euskadiko unibertsitateen arteko txapelketa jokatuko da etzi gurean 8




FOTO IMAGEN

## MCC-REN FUNDATZAILEEI ESKER ONA ADIERAZTEKO OMENALDIA EGIN DIETE

"Enpresa berri baten eraikuntzan parte hartu zenuten, eta gure errealitate soziala eraldatu egin da. Horixe adierazten du kooperatibismoak", esan zien Alfonso Gorroñogoitiak zapatuan kooperatibaren fundatzaileei egindako omenaldian. 500 lagunetik gora batu ziren Musakolan, bazkide zenbakidun kooperatibista beteranoak guztiak. Esker oneko berben ostean, bazkaria, bertso saioa eta Goikobalu abesbatzaren emanaldia izan zituzten. 4

# GEUREAN

• Udalaren bitartekotza eskatu dute Arrasateko Gamei enpresako langileek | 5
• Egubakoitzean zabaldu zuten berriz gaztetxea Antzuolan | 5



Juantxo Lopez Uralde Greenpeace-Espainiako zuzendariarekin jardun dugu | 7

DEBAGOIENEKO ENPRESAK MAKINA-ERREMINTAREN BIENALEAN




ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Prentsa mekaniko serboakzionatua erakutsiko du Fagor Arrasatek bienalean.

**MAKINA-ERREMINTA** | GAUR IREKIKO DITU ATEAK MAKINA-ERREMINTAREN 24. BIENALAK, BEC-EN

# Makina-erremintaren bienala gaur abiatuko da 1.752 firmarekin

*33 herrialdetako 1.752 firma batuko dira BECen hilaren 11ra bitartean. Euskal Herriko enpresek izango dituzte saltoki gehien: 289, hain justu. Eguerdian inauguratuko dute*

Monika Belastegi

Gaur irekiko ditu ateak makina-erremintaren 24. bienalak, Barakaldoko BECen bigarrenez. Hilaren 11ra bitartean egongo da zabalik eta 33 herrialdetatik etorritako 1.752 merkataritza-izen batuko dira, 757 saltokitan.

Antolatzaileek egubakoitzean egindako prentsaurrekoan azaldu zutenez, makina-erreminta sektorean Europan egiten den hirugarren erakusketa garrantzitsuena da, eta "hemen eta kanpoan duen proiekzioari esker, maila handiko industria eta teknologia sektoreen nazioarteko erakusleiho bihurtu da". Gainera, aurten "gune estrategiko gisa" ere aurkeztu dute bienala. Izan ere, "Europan makina-erremintaren sektoreak suspertzea lortu du azken hilabeteetan". Horrekin batera, nazioarteko merkatuan aukera berriak sortu direla ere gehitu zuten antolatzaileek. Hala, feriaren helburua da hartu-eman berriak egitea, harreman zuzena izatea bezeroekin, erosle edo saltzaile berriak identifikatzea, esportazio eta inportazio aukera berriak analizatzea eta sektorean aurrerapen nagusiak ezagutzea.

**SALTOKI GEHIENAK EUSKAL HERRIKOAK**

Feriako saltoki gehienak Euskal Herriko enpresenak izango dira: 289, hain justu. Eta tartean, Debagoieneko hamar enpresa ere egongo dira, nor bere saltokian. Estatukoak ere ugari izango dira, eta Italia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Portugal, Japonia eta Ameriketako Estatu Batuetako ordezkariak ere bai.

BECeko sei pabilioietan barrena antolatu dute erakusketa eta azalerarik handiena hartuko du abiarazgailu bidezko makina-erreminten sektoreak: %38, hain zuzen. Deformazio bidezko makina-erremintenak %21 hartuko du; erreminten sektoreak %11 izango du eta makina-erremintendako osagarrienak, berriz, %8. Erakusketaren gainerako guneak eskainiko zaizkio, besteak beste: tresneria elektriko eta elektronikoari, manipulazio eta robotikari, tresneria hidrauliko eta pneumatikoari, metodologia eta kalitate kontrolari eta CAD/CAM/CAE metodologiari.

40 herrialdetako 500etik gora profesionalek ere parte hartuko dute ferian, eta, antolatzaileek esan zutenaren arabera, milaka bisitari espero dituzte gaur eguerdian inauguratuko duten bienalean.

**Azken hilabeteetan Europan suspertzea lortu du makina-erreminta sektoreak**

**Abiarazgailu bidezko makina-erreminten sektoreak hartuko du azalera handiena**

DEBAGOIENEKO ENPRESAK MAKINA-ERREMINTAREN BIENALEAN

# Ibarreko hamar enpresa izango dira bienalean datorren zapatura bitartean

## Zenbakiak

**24**

Makina-erremintaren bienalaren 24. edizioa hasiko da gaur. Barakaldoko BECen egingo den bigarren aldia da.

**33**

Herrialde ugaritako ordezkariak batuko dira; 33 herrialdetatik etorritako 1.752 merkataritza-izen, hain justu.

**757**

Bost kontinenteetako ekoizle garrantzitsuenak 757 saltokitan batuko dira, munduko erosleen zerbitzura.

**289**

Euskal Herriko enpresek izango dute saltoki gehien; 289, hain justu ere. Europatik ere pilatxoa etorriko da.

**10**

Debagoienetik hamar enpresa izango dira bienalean. Asteburuan egin dituzte azken prestakizunak.

## Esandakoak

"Europan makina-erremintaren sektoreak suspertzea lortu du azkeneko hilabeteetan"

"Nazioarteko erakusleiho izango da bienala, hemen eta kanpoan duen proiekzioari esker "

**JOSE MIGUEL CORRES** | BEC-EKO KONTSEILARI DELEGATUA

*Produktuak erakusteko bide egokia izateaz gain, bezeroekin aurrez aurre egoteko gune aproposa dela uste dute*

M.B.

Ibarretik doazen hamar enpresetako gehienek urteak daroate bienalera joaten. Batzuek lehenengo ediziotik. Han egoteari garrantzi handia ematen diote: produktuak ezagutzera emateaz gain, bezeroekin aurrez aurre egoteko aukera eskaintzen die eta baita sektorean dauden aurrerapenen berri izateko ere.

**BALZERS ELAY SA** | ANTZUOLA

**Balinit Helica estaldura da eroango duten berrikuntza**

PVD bidezko estaldurak egiten ditu. Bienalean erakusgai izango duten berrikuntza da Balinit Helica estaldura, barautsendako bereziki egindakoa. 6. belaunaldiko 2. geruza da (aluminiokromo oinarri duten geruzak dira). Iaz atera zuten lehenengoa, Balinit Alcrona deritzona. Bigarren erakusmahai batean estalduren aplikazioak erakutsiko dituzte.

**MONDRAGON SISTEMAS** | ARRASATE

**Testing System promozionatuko dute**

Produkzioan eta laborategian egiten dituzten test sistemak erakutsiko dituzte. Horretarako erabiliko dute, batetik, ikus-entzunezko bat teknologia estandarraren bidez egindako *Llave en mano* deritzen proiektuak erakusteko. Bestetik, bi test sistema erakutsiko dituzte: bata, ikusmen artifizial bidez parametroak neurtzen dituen sistema da. Errodamenduak era automatizatuan neurtzen eta klasifikatzen ditu. Beste sistema estankotasun kontrolekoa da. Horrek hermetikotasuna neurtzen du.

**FAGOR ARRASATE** | ARRASATE

**Prentsa mekaniko serboakzionatuen gama**

Prentsa mekanikoen produktibitatea eta malgutasuna hobetzeko beharrari erantzuteko asmoz prentsa mekaniko serboakzionatuen gama sortu dute. Hain justu, prentsok erakutsiko dituzte bienalean.

**SISTECO SL** | ELGETA

**Bi saltoki izango dituzte: 1. eta 2. pabilioietan**

Bi saltoki izango dituzte, eta, hain zuzen, erakutsiko dituzten makinak daude zuzenduta automozio, aeronautika, tren eta eraikuntza alorretara.

**FAGOR AUTOMATION S. KOOP.** | ARRASATE

**Bi negoziok erakutsiko dituzte euren produktuak**

CNC Negozioari dagokionez, batetik, Zenbakizko Kontrol Sistemen barruan CNC 8070 erakutsiko dute, besteak beste. Prestazio altuko zenbakizko kontrola da, ekoizpena handitzen du eta mekanizatuen kalitatea hobetu. DRO Negozioaren kasuan, INNOVA serieko bistaratzaileak aurkeztuko dituzte, Fagorren prestazio esklusiboekin.

**LAIBE** | ELGETA

**Burdina mozteko zortzi bat makina erakutsiko dituzte**

Burdin mota ezberdinak mozteko makinak jarriko dituzte ikusgai. Atzerrian makinok erosi eta hemengo merkatuan komertzializatzen dituzte. Bienalean egotea garrantzitsua dela diote.

**TECHNOSYSTEM** | BERGARA

**Sei makina eroan dituzte, tartean Lazpiurrekoak**

Makinak komertzializatzen dituzte eta sei eroan dituzte, tartean Bergarako Lazpiur lantegiko bi; kontakturik gabeko piezen dimentsioen kontrolerako sistemak dira.

**ORNI SL** | BERGARA

**Orain arte muntatu duten saltoki handiena dute**

Hiru robot erakutsiko dituzte, besteak beste. ABB robota, Stäubli robota eta Kuka robota. Lehenengoa, esaterako, galdategirako pentsatuta dago. Urari bidea ireki edo ixteko erabiltzen diren balbulei bizarra kentzen die. Kuka robotak, berriz, autobusen tapakuboak hartu, lixatu eta leundu egiten ditu. Hori guztia 130 $m^2$-tan erakutsiko dute, orain arte izan duten saltokirik handienean.

**SORALUZE S. KOOP.** | BERGARA

**Bienaleko fresatzeko makinarik handiena**

Hiru fresatzeko makina eroan dituzte. Horietako bat da zutabe mugikorreko fresatzeko eta mandrinatzeko makina horizontala. Soraluzeko ordezkarien esanetan, azokan egongo den handiena. 4,8 metro ditu altueran, 10 metro luzeran eta 10 bat tona pisatzen du. Bestalde, 1.100 $m^2$-ko saltokia daukate.

**LASA** | ARRASATE

**Hainbat sistema eroan dituzte azokara**

Elikatzaileak, xaflak hariltzeko makinak, zuzengailuak... egiten dituzte eta bienalean erakutsiko dituzte. Hainbat sistema ere garatzen dituzte; bobinak aldaketetan segurtasuna eta fidagarritasuna hobetzeko BWS Sistema, kasu.




ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Enpresetako ordezkariek saltokiak, gaurko prest izateko azkeneko ukituak egiten jardun dute asteburuan.

Aretz

Plater konbinatuak • Ogitartekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitartekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



**FUNDATZAILEEN EGUNA** | MCC KOOPERATIBAREN SORRERAN PARTE HARTU ZUTENAK ELKARTU ZIREN ARRASATEN ZAPATUAN

# Esker ona erakutsi zieten MCCren fundatzaileei

*MCCren 67 kooperatibako fundatzaile eta langileak elkartu ziren bazkari-omenaldira*

*Martxoaren 21ean ekingo diote Jose Maria Arizmendiarrietaren kanonizazio prozesuari*

Marijo Deogracias

Musakolako kiroldegia kooperatibismoaren alde lan egin duten guztiei errekonozimendua aitortzeko senidetze-leku erraldoi bihurtu zuen MCCk zapatuan. Kooperatibaren 50. urteurrenaren barruan fundatzaileei eskainitako eguna izan zen zapatukoa. Alfonso Gorroñogoitia ULGORen sortzaileetako batek adierazi zuenez, “ez da txantxetakoa gure urteurrena, eta bukaera ona ematen saiatuko gara egun hunkigarri honi”.

Hasi, ordea, agurrekin hasi zen. Kiroldegiaren kanpoaldean elkartu ziren MCCren kooperatiba guztietako sortzaileak. Asko ziren elkar besarkatu zuten aspaldiko lankide ohiak, gehienak erretiratutako kooperatibistak ziren. “Zorionak, Alfonso”, “Zuri ere bai, gizona! ”, entzun genion behin baino gehiagotan Alfonso Gorroñogoitiari. Hura eta Jose Maria Ormaetxea –ULGOReko sortzaileak– elkarren ondoan egon ziren bazkarian, Jesus Catania eta Juan Mari Otaegirekin.

**ESKER ONA**

Juan Mari Otaegik egin zuen berba lehenengo, MCCren kongresuko lehendakari legez: “Bi sentimendu batzen dira gaurko ekitaldian: esker ona, batetik, eta errekonozimendua, bestetik. Zuek lagundu zenuten sortze prozesuan praktikarekin, eta elkartasunezko gizon moduan bidezko gizarte baten alde aritu zineten. Eraldaketa prozesua izan da gurea, zuena, horixe baitzen Arizmendiarrietaren proiektua”.

Alfonso Gorroñogoitiaren lehenengo berbak ere esker onekoak izan ziren: “Enpresa berri baten eraikuntzan parte hartu zenuten eta gure errealitate soziala eraldatu egin da. Horixe adierazten du kooperatibismoak. MCC aberastasun muin garrantzitsua da Euskal Herrian, eta bidezkoa da adieraztea hau guztia egindako lan eskergaren emaitza dela, bai eta izandako enpresa talentuagatik eta oinarri kontzeptualengatik ere: lanerako moral zorrotza, elkartasuna, erakundeen soiltasuna eta oreka. Eta bidezkoa da eskerrak ematea kooperatiben fundatzaileei, bazkideen ardurari, hildako bazkideei eta Jose Maria Arizmendiarrietari, fundatzaile bakar legez, inor izatekotan. Hark laga zizkigun sinesbidea, bokazioa eta bizitza ulertzeko modua”.

**KANONIZAZIOA**

Arizmendiarrietaren eta harekin batera kooperatibak sortu zituzten fundatzaileei eskerrak eman ostean ekin zioten bazkaltzeari Musakolan. Aurretik, baina, Otaegik gogoratu zuen MCCren mende erdiaren ospakizunekin amaitzeko martxoaren 21ean ekingo zaiola On Jose Maria Arizmendiarrietaren kanonizazio proiektuari.




JOSETXO ARANTZABAL

500 lagun elkartu ziren Musakolako kiroldegian Fundatzaileen Eguna ospatzeko.

## • NOLA GOGORATZEN DUZUE ZUEN HASIERA KOOPERATIBAN?



**INAZIO BALTZATEGI** | ULGOR

“Ilusio handiarekin hasi ginen, mundua aldatuko genuela zirudien, baina familia handitzen joan ahala galtzen joan zen hori”, zioen 25 urtez kooperatiban lan egin zuen mondragoetarrak.



**JOSEBA LASAGABASTER ETA KONTXITA ARANA** | COPRECI

Kontxita Coprecin hasi zen lehenengo emakumea izan zen. “57an hasi nintzen, 18. zenbakiarekin. Urte gogorrak izan ziren. Orduan interes handiagoarekin lan egiten zen. Doktrina ona da, baina praktikan aldatu egin da denborarekin”. Joseba 9. zenbakiduna zen Coprecin.



**EUSEBIO ASKASIBAR** | ULGOR

“Hasiera txarrak gogoratzen ditut. 12-13-14 ordu egunero. Proba asko egiten ziren orduan”, gogoratu zuen 16. zenbakidun bazkideak. 28 urtez aritu da Ulgor eta Fagorren lanean.

## • OHOREZKO AURRESKUA, BERBALDITXOA, BERTSOAK ETA ABESBATZA



JOSETXO ARANTZABAL

**ARIZMENDIARRETA.** Hizlari biek gogoratu zuten On Jose Maria Arizmendiarrieta. Asier Aranguren ETBko kazetari aretxabaletar ezagunak –"eta kooperatibisten semeak", berak azaldu zuen legez– egin zuen aurkezpena.




FOTO IMAGEN

**GOIKOBALU ABESBATZA.** Ohorezko aurreskuaren ostean, eta jada bazkaldu ondoren, Goikobalu abesbatza aritu zen fundatzaileei egindako omenaldian. Harekin batera abestu zuten, guztiek zutik, *Agur Jaunak*. Bertsoan egin zuten Mendiluzek eta Muruak.




GOIATZ ARANA

Etxeberriatarrek organo neutralaren proposamena onartuz gero, mobilizazioak utziko dituzte langileek.

# Udalaren bitartekotza eskatu dute Gameikoek

*Organo neutral batek Etxebarriatarren akzioen balioa tasatzeko proposatu dute, eta administrazio kontseiluak begi onez ikusi du*

Monika Belastegi

Gamei enpresako langileek Udalaren bitartekotza eskatu dute aurrerapausoak eman ahal izateko. Egubakoitzean batzartu ziren langileak Arrasateko alkate Ignacio Lakuntzarekin eta proposamen bat egin zioten, Iñaki Zabala enpresa-batzordeko presidenteak azaldu duen moduan: "Langileon eta gutxieneko akziodunen artean bitartekotza neutrala egingo duen organoa nahi dugula esan genion, bien artean arbitrajea egingo duena, eta gutxieneko bazkideen akzioen balioa tasatuko duena". Gauzak horrela eginez gero, gutxieneko bi bazkideei akzioak erosteko prest leudeke langileak. Ignacio Lakuntzak, berriz, proposamena Etxeberriatarrei jakinaraziko diela esan zien langileei.

**ORGANO NEUTRALA**

Akzioen balioa tasatuko duen "organo neutralari" dagokionez, langileek ez dute zehaztu zein organo mota izango den: "Epaitegiak gaur egun enpresa judizialki kontrolatuta izateko izendatuta dauzkan hiru administratzaileak izan daitezke. Udala bera ere bai. Dena dela, organo hori bi akziodunekin adosteko ere prest gaude", gehitu zuen Zabalak.

Bestalde, bi akziodunek, Etxebarria anai-arrebek langileen proposamena onartzen badute mobilizazioak bertan behera lagako dituztela ere gehitu zuen Zabalak.

**GAMEIKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUA ERE KONFORME**

Gameiko administrazio kontseiluak bat egin du organo neutral hori osatu eta enpresaren balioa tasatzeko proposamenarekin. "gokia eta arduratsua" deritzo, "enpresa itxi eta lanpostuen galeraren aurrean".

# Emakumearen Eguna aldarrikatzeko manifestazioak

*Manifestazioak egingo dituzte martitzenean Bergaran, 18:00etan, eta eguaztenean Arrasaten, 19:00etan*

Asteleheneko Goienkaria

Etzi da martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna. Eta, horixe gogora ekarri eta aldarrikapenak egiteko hainbat ekintza antolatu dituzte Debagoienean. Bihar bertan Bergaran eskualdeko manifestazioa egingo du ESK sindikatuak; 18:00etan da hitzordua, Bergarako plazan. Etzi, berriz, Arrasateko Emakumeen Kontseiluak deituta aterako dira kalera emakumeak, *Zainketa lanak banatzea!* leloarekin. Hitzordua 19:00etan da, Seber Altuben.

**JAI GIROAN**

Aramaioko Ituri-Zuri elkarteak filma emanaldiak, antzerkia eta auto-estimuaren eta autolaguntzaren gaineko hitzaldia antolatu ditu. Eskoriatzan Amuska emakumeen elkartearekin elkarlanean zapaturako laga dute martxoaren 8ko aldarrikapena. Jai giroan gogoratuko dute eguna eta afaria egingo dute Mendigoia hotelean. Bide batez, elkartean egindako eskulanak erakutsiko dituzte arratsaldean zehar.

**HEZKIDETZA JAIA**

Arrasateko ikastetxeek eta Udal Hezkuntza eta Aukera Berdintasunerako Sailak, urtero legez, hezkidetza jaia egingo dute. Bihar, martitzena, Emakumearen Egunaren testuinguruan, Uarkapen. Goizean goizetik ekingo diote jaiari (08:45-20:00) eta jolasak, tailer ez sexistak, argazki ez sexisten erakusketa eta bestelakoak egingo dituzte.

Hezkidetza jaialdia egiten 1997an hasi ziren.



ARTXIBOA

Bihar, Bergaran eta etzi, arrasaten egingo dituzte manifestazioak.

• BERGARAKO EUSKALTZALEON BILGUNEA

## HIZKUNTZA ESKUBIDEAK DENON KONPROMISOA DIRA

BErBak (Bergarako euskaltzaleon bilguneak) aurrera jarraitzen du *Hizkuntza eskubideak denon konpromisoa* kanpainarekin. Aurreko astean *Goienkaria*-rekin batera banatu zituzten orriak batzen jardun zuten zapatu goizean azoka aurrean. Orriok beteta, herritarrek euskararekiko konpromisoa adierazten dute. Oraindik ere orria entregatu ez dutenek herriko 18 komertziotan lagatzeko aukera dute. Ekainean ekitaldi zabala egiteko asmoa du bilguneak eta bertara konpromisoa hartu duten guztiak gonbidatuko dituzte. Baita ordura arte egiten dituztenetara ere.



JOSETXO ARANTZABAL

• ANTZUOLAKO GAZTETXEA



JOSETXO ARANTZABAL

## EGUBAKOITZEAN ZABALDU ZUTEN BERRIZ

Berriz dago zabalik gaztetxea Antzuolan –Kalebarrenen, plazaren ondoan–. Herriko bi gazte koadrila arduratuko dira aurrerantzean gaztetxearen funtzionamenduaz. Astegunetan zein asteburuetan egongo da zabalik, arratsaldeko 5etatik aurrera.



JOSETXO ARANTZABAL

Galdames eta Txorierriko harri-zulatzaile talde bana aritu ziren erakustaldian.

# Santu Martirixena ateri ospatu zuten osintxuarrek

*Azokan erosketak egin ostean harri-zulatzaileen erakustaldiak ikusmina sortu zuen Osintxuko plazan*

Asteleheneko Goienkaria

Badira urte batzuk San Emeterio eta San Zeledonioren omenezko feria egiten dutela osintxuarrek, eta zapatuan zorte itzela izan zuten eguraldiarekin. Eguna erabatekoa izan zuten, goizeko azoka eta harri-zulatzaile erakustaldiarekin, umeendako tute-mus-partxis lehiaketarekin arratsaldean eta bertso afariarekin iluntze-gauean.

Olalde-Azkorta Erdikoa baserrietakoek eta Jose Arbelaitzek saltoki bana jarri zuten eta Mugarriko Luis Mari Zangituk sendabelarrez egindako krema eta bestelakoak jarri zituen salgai. Betiko moduan, Txurrumilo elkarteko ogi eta pastel postuak itzelezko arrakasta izan zuen: dena saldu zuten. Antzera gertatu zen Bolatokiko tabernako talo postuarekin: Osintxuko emakumeek egindako taloak goxo asko zeuden.

**Txurrumilo elkartekoek ogi eta pastel guztiak saldu zituzten azokan**

**TXORIERRI TXAPELDUN**

Eguerdian Galdames eta Txorierritik etorritako harri-zulatzaile taldeen txapelketa egin zuten. Ordu erdiko saioan aritu ziren, euretako batek harri-zulatzaileen jatorria eta jokoaren nondik norakoak azaltzen zituen bitartean. Ikusmina sortu zuen bisitarien artean, eta Txorierrik irabazi zuen lehia.

Txurrumilo elkartekoek balorazio positiboa egin dute Santu Martirixen feriaren gainean, eta "eguraldiarekin izandako zortea itzela izan da", esan digute.

# Oñatik 15.565 bisitari jaso zituen iaz; aurreko urtean baino %19,16 gehiago

Monika Belastegi

Pozik daude Oñatiko Turismo Bulegoko arduradunak. Iaz 15.565 bisitari izan zituzten, aurreko urtean baino %19,16 gehiago (2.503 pertsona gehiago), eta horietatik 7.866k egin zuten bisita gidatua.

Abuztuan, irailean eta urrian batu ziren bisitari gehien Oñatin. Hala eta guztiz ere, Turismo Bulegotik nabarmendu dute urte osoan barrena dagoela bisitarien joan-etorria. Hori horrela, "azpimarratzekoa da Oñatin gero eta gutxiago egiten dela berba goi eta behe denboraldiez; izan ere, hilabete guztietan datoz bisitariak".

Oñatira hurbiltzen diren bisitarien jatorriari dagokionez, Estatuari erreparatuz gero gehienak kataluniarrak dira eta haien ondotik valentziarrak datoz eta madrildarrak gero. Estatutik kanpokoen artean, frantsesak datoz gehien eta ingelesak, australiarrak, holandarrak eta amerikarrak gero.

**2006RAKO BISITA BEREZIA**

Turismoa bultzatzeko ekimenen artean bisita gidatu bereziak antolatu dituzte. Maiatzean musika jardunaldiak eta Mundumira jaialdia egongo dira eta euskal eskola publikoaren jaia eta Gorpuztiak ekainean. Hala, data horiek aprobetxatu dituzte bisita bereziak eskaintzeko.

• ELGETAKO GAZTETXEAREN 10. URTEMUGA



LARRAITZ ZEBERIO

**UMEEN EGUNA EGIN ZUTEN ZAPATUAN**

Gaztetxoenengan ere pentsatuz, Umeen Eguna antolatu zuen Elgetako Gazte Asanbladak zapatuan, gaztetxearen 10. urtemuga ospatzeko ekitaldien barruan. Jokoak, ezustekoak eta bazkaria eta guzti izan zuten herriko gaztetxoenek, eta ondo baino hobeto ibili ziren parte hartu zuten 38rak. Egubakoitzean, hilaren 10ean, *Gaztetxeak 10 urte lelopean* berbaldia egingo dute –funtzionamenduaz, ekintzez...– gaztetxetik igaro diren hainbat lagunek.

# Hildako bi presoen alde mobilizazio ugari ibarrean

*PPk eta Aralarrek eguen gauean Arrasaten banketxeei egindako erasoak salatu dituzte*

Iker Barandiaran

Astean mobilizazio ugari deitu dituzte Igor Angulo eta Roberto Saiz preso politikoen heriotzak salatzeko. Hala, egubakoitz iluntzean ibarreko herri guztietan egin zituzten kontzentrazioak edo manifestazioak. Arrasatekoa izan zen jendetsuena, eta 300 bat lagunek manifestazioa egin zuten. Ertzaintzak bitarteko asko erabili zituen, eta hiru bat furgoneta eta auto bat PSEren egoitzaren alboan izan zituen une batez. Hala ere, manifestazioak eta Ertzaintzak ez zuten bat egin, eta ez zen inolako istilurik izan.

Egubakoitz eguerdian, berriz, 100 bat ikasle elkartu ziren Arrasaten, bi presoen heriotza salatzeko, eta Ertzaintzak bortizki sakabanatu zituen Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoaren alboan. Halaxe jakinarazi zuen egubakoitzean Askatasunak helarazitako prentsa ohar batean.

**BANKETXEEI ERASOAK**

Bestalde, PP eta Aralar taldeek eguen gauean Arrasaten hiru banketxeri egindako erasoak salatu dituzte. PPko Itziar Lamarainek kutxazainak erretzea gaitzetsi zuen eta salatu zuen "kaleterrorismoa berriro hazten" dabilela eta ez duela uste "ezer aldatu denik". Aralarren ustetan, "halako ekintzek bizikidetza eta bakea oztopatu egiten dute". Hortaz, uste du "atzerapausoak" direla.




JOSETXO ARANTZABAL

Arrasatekoa izan zen agerraldi jendetsuena. Arratsaldean ez zen istilurik izan.

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean Komunikaldiak egingo dira egubakoitzean. Jardunaldi horietan aztergai nagusia izango da komunikazio korporatiboa, eta hizlarietako bat izango da Greenpeace erakundearen zuzendari Juantxo Lopez. Donostiarra da, eta Madrilen aritzen da beharrean. Elkarrizketa egin diogu Greenpeacen urteko batzarraren atsedenaldian. Komunikazioaz eta gizarte mugimenduez arituko da HUHEZIn.

**JUANTXO LOPEZ URALDE** | GREENPEACE-ESPAINIAKO ZUZENDARIA

# "Agenda mediatikoan ez dauden gaiek iritzi publikoan interesa piztea da gure ardura"




ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Juantxo Lopez donostiarra da Greenpeacen arduraduna espainiar estatuan.

Marijo Deogracias

***Komunikazioa mugimendu sozialetan.* Horretaz arituko ei zara Komunikaldiak jardunaldietan.**

Greenpeacen esperientziatik abiatuta aritzea da nire helburua, jakina. Komunikazioak guretzat duen garrantziaz eta nola egiten dugun azaltzen saiatuko naiz; ingurumenaren babesean eragiteko komunikazioa nola erabiltzen dugun azaltzea dut helburu.

**Hedabide orokor eta handiek egiten duzuenari, eta orokorrean gizarte mugimenduek egiten dutenari, ematen dioten jarraipena kontuan izanik, lan dezente eragingo dizuete komunikazio horrek.**

Horretan datza gure ardura: agenda politiko-mediatiko eta sozialean ez dauden gaiek iritzi publikoarengan interesa piztea.

**Zer litzateke garrantzitsuagoa: titular handi bat ala egiten ari zareten horren jarraipena egitea?**

Gure helburuak lortzeari ematen diogu garrantzia eta horretarako hedabideak erreminta erabilgarri izan daitezke, baina ez dira ezinbestekoak. Ingurumenari begira gauza garrantzitsuak lor zenitzake jarraipen mediatikorik izan barik. Greenpeacek lan handia egiten du –gure arlorik ezezaguna, agian– arlo politikoan, nazioarteko hitzarmenen bitartez. Medioak garrantzitsuak dira, baina gaur egun, zorionez, publikoarengana iristeko moduak dibertsifikatu egin dira: komunikazio zuzena posible egiten duten bideak.

**Hortxe sartuko litzateke Internet eta mugimendu sozialendako duen garrantzia?**

Topikoa izan arren, organizazio sozialendako Internetek efektu biderkatzailea eragiten du komunikatzeko ahalmenean.

**Erabilera zabala eskaintzen dizuetelako?**

Oraingoz Internet delako komunikazio zuzenaren biderik garrantzitsuena. Esate baterako, informe edo bestelako txostenetara iritsi ahal izateko izugarrizko abantailak eskaintzen dizkigu Internetek. Adibide bat jartzeagatik: elikagai transgenikoen gainean argitaratzen ditugun zerrendek Interneten izaten dituzten bisitaldiak izugarriak dira. Jende askok jakin nahi du erosiko duen elikagaia transgeniko den. Horren harira, gure lanari begira, komunikazio zuzen hau oso baliagarria da; erraztu egiten digu lan asko.

**Eguen eta egubakoitzean izan duzue Greenpeacen urteko batzarra. Zer azpimarratu duzue iazko lorpenetatik?**

Guretako nabarmenena da Kiotoko protokoloa indarrean sartu zela. Helburuak lortzea horrenbeste kostatzen denean, gero ahaztu egiten dituzu. Hain zuzen ere, Kiotoren gainean orain dela urtebete eskas asko ziren esaten zutenak ez zela ezer lortuko. Baina azkenean errealitate bihurtu da. Espainiako Estatua protokoloa betetzen azkenekoa da, baina hori bigarren mailakoa litzateke Kioto errealitatea dela kontuan hartzen badugu. Aurrerantzean berau betearazteko lan egitea egokitzen zaigu.

Horrekin batera badira hainbat garaipen ere. Esaterako, basoen babesari dagokiona: Amazonako 6 milioi hektarea basoren babesa lortu dugu. Horrek ez du esan gura ingurumenaren adierazleak negatiboak ez direnik, baina urteko balantzea egiteko orduan lortutakoak ere kontuan hartu behar dira; osterantzean, egoera nahiko samingarria delako. Bestetik, substantzia kimikoen tratamenduaren gaineko hitzarmena dezente aurreratuta daukagu. Horrekin batera ingurumenean erabateko eragina izango lukeen Cabo de Gatan egitekoak ziren hotelaren proiektua geraraztea ere lortu dugu.

Eta elkarteari dagokionez, 90.000 bazkiderekin amaitu dugu urtea –hazkunde garrantzitsua izan dugu– eta 4,5 milioi euroko sarrerak izan ditugu.

**Zein helburu dituzue 2006an?**

Ozeanoei eskainiko diegu urtea. *Urte bat Ozeanoen bizitzan* espedizioa hasi dugu –Antartikan ekin zion bideari Japoniak egiten duen bale ehizaren kontra– eta itsasontzia Afrika mendebaldeko kostaldean dago, ez legezko arrantza salatzen. Hain justu, horrelako salaketa bategatik prozesua irekita dauka Auzitegi Nazionalak gure kontra –tartean neu ere salatu naute–.

**Aizu, antxoaren kostera hasiko dutela eta, zer deritzozu?**

Arrantzaleekin bat egiten dugu erabat: etenaldia luzatu egin behar zen. Besterik ez bada, prebentzioagatik debekua luzatzea zatekeen zuzenena.

**Donostiarra izanik, San Markos zabortegiarena jarraitu duzu?**

Erraustegiaren erabat kontra gaude eta badakigu San Markosen egoera jasanezina dela. Zaborren bereizketan gehiago sakontzen duten sistemen alde egin beharko litzateke. Horren harira, txalotzekoa da aurten San Markosen gertatu den zabor batzeen gutxitzea.

Eztabaida egotea positiboa da, kontzientzia sortzen delako eta, elkarrizketaren hasieran esandakoari jarraituz, kontzientzia sortzeko modu bakarra arazoetaz hitz egitea dela. Gure ustez, oso garrantzitsua da, eta gauza bat esango dizut: hiritarrok, segundo batez besterik ez bada, ingurumenean pentsatzen dugu zaborra birziklatzen dugunean.

> **"Medioak garrantzitsuak dira, baina zorionez, dibertsifikatu egin dira iristeko bideak"**

> **"2005a ezkero nabarmenena da Kiotoko protokoloa indarrean sartu dela"**

> **"Ozeanoei eskainiko diegu urtea, 'Urte bat Ozeanoen bizitzan' espedizioarekin"**

> **"Zaborren bereizketan sakontzen duten sistemen alde egin beharko litzateke"**

## Albiste izango da

DEBAGOIENA | BIHAR DA IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA

### Autobusak Bergara eta Arrasatetik *Sua* filma grabatzera joateko

Autobusak antolatu dituzte martxoaren 11n, Maulen egingo duten Sua filmaren grabaketara joateko. Eneko Aritzaren lagunak kultura eta filmaketa elkarteak grabatuko du filma eta estrak behar dituzte. Gurean ere autobusa antolatu dute Maulera joateko. Arrasatetik 08:15ean aterako da, Garibaitik, eta Bergaran ere egingo du geldialdia, 08:30ean, autobus geltokian. lekua hartzeko deitu 656 74 83 37 (Jone) telefono zenbakira. Bihar, martitzena, da azkeneko eguna. Prezioa 10 euro dira egunean bertan bueltatzeko. Gaua Maulen igaroz gero, berriz, 15 euro.

BERGARA | 11:00ETAN, NEKAZARITZA BULEGOAN

### Tolosako Babarruna Elkartea kide berri bila etorriko da eguenean

Tolosako Babarruna Elkartea kide bila dabil ekoizpena egonkortzeko eta merkatuan presentzia handiagoa izateko helburuarekin. Hori horrela, alternatiba bila dabiltzan ekoizleei dei egiten die Gipuzkoan barrena egiten diharduten batzarretara. Gurera ere etorriko dira eta Bergaran egin dute hitzordua, eguenean, 11:00etan, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan. Informazio telefonoa ere badute: 943 65 02 53. Elkartearen esanetan, Tolosako babarrunaren inguruan hainbat topiko daude, jatorriaren gainekoak, batik bat. Horren harira diote Tolosan barik beste herri batzuetan egindako babarrunek ere Tolosako Babarruna izendapena izan dezaketela. Besteak beste, halako kontuak argituko dituzte batzar informatiboan.

DEBAGOIENA | ARRASATEN IZANGO DIRA ESKOLAK

### Geriatria laguntzaile ikastaroan izena emateko azken eguna da gaur

Gaur bukatuko da izenematea Gurutze Gorriak antolatutako geriatria laguntzaile ikastarorako. Ikastaroa gaur hasi eta martxoaren 25era bitartean izango da. 30 teoria orduk eta 20 praktika orduk (zaharren egoitzetan) osatzen dute ikastaroa. Astelehenetik egubakoitzera izango dira eskolak, 19:00etatik 21:00etara, Arrasaten, Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan (Nafarroa etorbidea 21). Prezioari dagokionez, 110 euro dira eta izena emateko deitu 619 00 35 00 telefono zenbakira.

Besteak beste, jorratuko dira ikastaroan: zahartzearen biologia, pertsona nagusien garbitasuna, nutrizioa hirugarren adinean, nagusiek izaten dituzten metabolismo aldaketa nagusiak eta nagusien gaixotasunen ezaugarriak.

ESKORIATZA | ZERBITZU SAREAREKIN HASIKO DIRA

### Eguaztenean hasiko dira Dorleta auzoko urbanizazio lanak

Eguaztenean, hilak 8, hasiko dira Dorleta auzuneko urbanizazio lanak. Zerbitzu sarea (ura, argindarra eta ur zikina) eta telekomunikazioena berrituko dituzte eta baita zoladura berria jarri ere. Azken horrekin batera, espaloi zabalagoak egingo dituzte. Bestalde, aparkaleku kopurua handitu egingo da: gaur egun 56 ditu eta 110 izango ditu lanon ostean. Hainbat fasetan egingo dira lanak. Lehenengoan itxi egingo dute ibaiari paralelo doan bidea zazpi edo zortzi astez, zerbitzu sare berriari ekiteko. Aldi berean, umeen jolaslekua berritzen hasiko dira.

DEBAGOIENA | 359 KIROLARI BATUKO DIRA

### Euskadiko unibertsitateen arteko txapelketa egingo dute eguaztenean

Debagoienean egingo dute Euskadiko unibertsitateen arteko seigarren txapelketa. Eguaztenean, hilak 8, izango da eta Arrasateko, Aretxabaletako eta Oñatiko kiroldegietan jokatuko dute. Mondragon Unibertsitateak duela bi aste egin zituen fakultateen arteko kanporaketa saioak, eta talde sendoenak egongo dira txapelketa nagusian.

Hala, MU 140 kirolari inguruk ordezkatuko dute, eta EHUko eta Deustuko unibertsitateekin batera, 359 kirolari inguru elkartuko dira ibarrean, 14 modalitatetan lehiatzeko. MUk modalitate horietan guztietan izango du ordezkaritza.

## Hitzorduak



JAI ANTOLAKETA |

### Jaiak prestatzen hasteko batzarrak izango dira Bergaran eta Eskoriatzan

Bergarako Mendekoste jaiak antolatzeko garaia iritsi da, eta bi batzarrera dei egiten die Udalak laguntzeko gertu dauden herritarrei. Bat eguenean, hilak 9, egingo dute, kultura etxean, 19:00etan, eta Bideberriko kontzertuen gainekoa izango da. Komeni da norberak eramatea ikusi nahi lituzketen taldeen zerrenda eta horien gaineko informazioa. Bigarren bilera bat egingo dute hilaren 23an, Koadrilen Eguna antolatzeko.

Eskoriatzako Udalak ere batzarra deitu du hilaren 15erako. Han, Aratuste jaiak baloratu eta San Pedroez berba egingo dute. Kultur etxean batzartuko dira, 18:00etan.

**ARETXABALETA |**

**• Norbere hazkundea lantzeko terapia taldea egingo dute**
Norbere hazkundea lantzeko terapia taldearekin lan egingo du Encarna Mendez Gestalt terapeutak. Martxoaren 11n hasiko da tailerra, eta hilean saio bat egingo dute. Izenematea, 616 96 57 95 telefonoan.

**• Emakumeen gaineko hitzaldia Alizia Stürtzerekin**
Emakumeek Euskal Herrian izandako eraginaren gaineko berbaldia egingo du Alizia Stürtzek hilaren 9an, eguena, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

**• Umeei masajeak ematen ikasteko aukera dago**
Umeei masajea ematen ikasteko tailerra emango dute hilaren 11n. Izena emateko, jo Loramendi elkartearengana.

**ARRASATE |**

**• Zahar Berri berba taldeek afaria egingo dute**
Bederatzi berba taldeek afaria egingo dute hilaren 10ean, egubakoitza. Bertso eskolako iasleak ere joango afari ostea alaitzera. Izena emateko, deitu 943 77 12 28 telefonora.

**• Abaroan urteko batzarra egingo du hilaren 16an**
Abaroa erretiratuen elkarteak Batzar Orokorra egingo du martxoaren 16an. 17:00etan izango da elkartean bertan. Aztertuko dituzte, besteak beste, iazko diru kontuak eta 2006ko aurrekontua.

**• 1940an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Martxoaren 25ean egingo dute. Zabaleta lurrindegian eman behar da izena hilaren 18a baino lehen.

**BERGARA |**

**• Tignesera eskiatzera joango dira Pol-Pol taldekoak**
Alpeetara, Tignesera, eski irteera antolatu du Pol-Pol mendizale taldeak Aste Santurako. Argibideak, 943 76 48 51 telefonoan.

**• Euskal dantzen bi ikastaro antolatu ditu Jardunek**
Martxoaren 7an hasiko da ikastaro bat, Abarka taldearen eskutik, eta hilaren 10ean bestea, Xamatz taldearekin. Argibide gehiago, Jardunen (943 76 36 61).

**• Batzar Orokorra egingo du Umore-Ona elkarteak**
Batzar Orokorra egingo du Umore-Ona elkarteak bihar, martitzena, Miguel Altuna institutuan, 19:00etan eta 19:30ean.

**DEBAGOIENA |**

**• Umeak bataiatu gura dituztenendako oharra**
Apirilean Aretxabaletan edo Eskoriatzan seme-alabak bataiatu gura dituzten aita-amek eskaera-orriak jaso ditzakete euren parrokiako bulegoetan.

**• Gazteendako *www.beitu.org* webgunea ipini dute**
Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak ibarreko gazteendako webgunea ipini du: *www.beitu.org*. Ibarreko herrietako berriak, musika, sexologia, agenda... batzen dituzte han.

**• Taizé-ko fraideekin otoitzaldira joateko aukera**
Frantziako Taizé-ko fraide batzuekin otoitz egiteko aukera izango da martxoaren 17an Donostiako katedralean, gotzaina buru dela. Debagoienetik joan nahi dutenek mezua bidali behar dute *sjbgazte@hotmail.com* helbidera.

**• Arrasateko eta Oñatiko dendariendako ikastaroak**
Dendariei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte Dendartean, Txanda eta Ibai-Arte merkatarien elkarteek. Izenematea zabalik dago 943 42 55 57 telefonoan.

**ESKORIATZA |**

**• Irainek egiten duten kaltearen gaineko jardunaldia**
Nerabeen arteko jazarpenaren gaineko *Juul* erakusketa eta *Iraintzea hitzez jotzea da* delako hitzaldia izango dira eguenean, hilak 9, kultura etxean, 18:00etan.

**OÑATI |**

**• Euskal kurrikulumaren gaineko hitzaldia ikastolan**
Euskal kurrikuluma zer den eta azterketarako proposamenak azalduko dituzte hilaren 9an, eguena, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.


2005 zoriontsua...
SAIL TEKNIKOA
Arkitektoa
Aparejadorea
Ingeniaria
ZAHARBERRITUTA
M2
86 fatxada
114.000
48 teilatu
35.000
28 terraza (iragazgaitzak)
18.000
16 etxebizitza zaharberrituta eta egokituta
20 atari (BARRERA ARKITEKTONIKOEN EZABATZEA)
Bergara
Arrasate
Aretxabaleta
Laudio
Barria
Amezaga
Agurain
Vitoria
Gasteiz
Alegria-Dulantzi
Saseta
Lagran
LANTALDE TEKNIKO
OSOA ZURE OBRAREN
ZERBITZURA
IÑIGO
CONSTRUCCIONES, S.L.
Kanpokale Berria 23, behea
01001 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 271 675
www.construccionesinigo.com

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**

**goienkaria@goiena.com**

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

**• Labegaraietako parkearen egoera eskasa**

Bergarako Labegaraieta auzotik iritsi zaigu hurrengo txistua. Hango San Jose Obrero eliza aurreko parketxoaren egoera eskasaz kexu da gure irakurlea. "Bai, badakit ez dela askorik erabiltzen Labegaraietako aisialdi-gune hori, baina baliteke hango eserlekuen egoera eskasagatik izatea, ezta? Bidegorrian jende asko ibiltzen da eta San Jose Obrero eliza aurreko eserlekuak oso aproposak dira atsedentxoa hartzeko. Baina, jakina, eserlekuen egoera hain da eskasa… Noren ardura da kale altzarien egoera onaz arduratzea?".

**• AP-1eko ordainlekuaz kexu**

Bergara-Iparra irteerako ordainlekuan dagoen makinaren funtzionamendu eskasaren gainean jaso dugu hurrengo txistua. Irakurle batek aditzera eman digunez, eguen eta egubakoitz goizean, ordainlekuan dagoen txarteltxoaz ordaintzeko makina ez da ondo ibili eta "autoarekin atzera ibili beharra izan dut ordainlekuan, horrek dakarren arriskuarekin; eta hango beste kabina batera jo beharra izan dut, zaindaria dagoen kabinara, eta han eskuz ordaindu" Lagun honen esanetan, egubakoitzean ez zion beste inori trabarik egin makina ez ibiltzeagatik, baina eguenean "batetik, zegoen behe-lainoagatik eta bestetik, atzean beste auto bat zain nuelako, ariketa nahiko arriskutsua egin beharra izan nuen. Eta hori guztia, ordaintzeko!".

**• Bergarako plazako aparkalekuena anarkia hutsa da**

Bergarar batek idatzi digunez, "kezkagarria da herriko plazatik igarotzeko oinezkoek egin behar izaten ditugun peripeziak. Hori anarkia hutsa da. Hain zaila litzateke aparkalekua nolabait antolatzea? Eskerrik asko".

## Sarean harrapatuta

### Cibelesko modeloen inguruan sortu den polemika

**ACABEk (elikadura nahasteen aurkako elkarteak) altueraren eta pisuaren arteko proportzioan oso pisu txikia duten modeloak erabiltzea gaitzetsi du publikoki. ACABEren arabera, erabateko argaltasuna bultzatzen da emakumearen edertasun kanon moduan, emakumezkoak diskriminatuz, eta, hala, fabrikatzaileek ezinezko neurrietako arropak egiten dituzte. Gaiaren gaineko iritzia eman dute *Goiena.net*-en.**

**EMAKUMEA DEN MODUAN EZ DA ERRESPETATZEN**

Zer iritzi? Bada betikoa dela. Diseinugileek eta moda industria maneiatzen dutenek, alde batetik konpromisoak hartu, irudi ona emateko, eta bestetik nahi dutena egiten dute. Kontraesan handiak daude "moda eta edertasun" mundu horrek bidaltzen dituen mezuetan, eta hipokresia handia, noski. Eta horren azpian, sexuen arteko desberdintasun ikaragarria dago, beti gertatzen den bezala, eta emakumea den moduan aintzat ez hartzea eta ez errespetatzea dakar horrek.

Anti ana / www.goiena.net

**EZ DA CIBELESEN BAKARRIK GERTATZEN**

Garbi dago horrelako modeloek emakumearen irudiari kalte egiten diotela. Baina hori ez da gertatzen Cibelesen bakarrik, leku denetan gertatzen da.

Hollywoodeko izarrek ere 1'75 metro neurtzen dute eta 50 kilora ez dira iristen asko. Eta uste dugu beraiek direla "ondo" daudenak eta gu gaizki. Bada, ez, proportzio horiekin ezin da inor ondo egon eta ez saltzeko guri hori ona izango balitz bezala.

Josune / www.goiena.net

**ITXURARI GEHIEGI BEGIRATZEN DIOGU**

Modeloek ez dutela gazteengan eraginik? Ez dut uste hala denik. Gure gazteek telebistan, aldizkarietan… ikusten dutena kopiatzen dute. Eta ikusten badute emakume ereduak eta arrakastatsuak nolakoak diren (34 taila dutenak gehienak), kopiatzen saiatuko dira: batzuk anorexian eroriko dira; eta beste batzuk bizitza guztian zapuztuta egongo dira beraien gorputza ez delako telebistan agertzen direnen berdina.

Garen modukoak onartzen eta maitatzen ikasi behar dugu. Itxurari asko begiratzen diogu eta horrek ez du ezer onik ekarriko.

Ane Garcia / www.goiena.net

**BADAKIGU MODELOAK EZ DAUDELA OSASUNTSU**

Nik ez dut uste hainbesteko eragina dutenik modeloek gazteengan. Modelo batzuek daukaten gaixo musuarekin ez dira oso erakargarriak askorentzat. Nik uste dut diseinugile askok atentzioa emateko jartzen dituztela horrelako modeloak eta benetan lortzen dute, eraginkorra da sistema. Baina, gehienok garbi daukagu modelo horiek moduan egotea ez dela osasuntsua.

Lourdes / www.goiena.net

**GOSE HANDIA PASATZEN DUTE MODELOEK**

Nik uste dut gaur egungo gizartean inposatutako gustuak eta estereotipoak dauzkagula. Horren argala egotea ez da batere erakargarria, ezta osasuntsua ere. Hain argal egoteko modelo horiek kristoren gosea pasa dute, seguru nago. Gainera, metabolismoan ikaragarrizko nahasteak dituzte. Horrek ondorio txarrak eta arazoak ekarriko dizkie askori. Esaterako, anorexia edota bulimia. Modelo askok esan dute, gainera, gaixotasun horietakoren bat izan dutela eta zerbaitegatik izango da.

Mireia / www.goiena.net

**DIETA OREKATUA IZATEA DA GARRANTZITSUENA**

Guztiz ados nago zurekin, Mireia. Gorputzari izugarrizko egurra ematen diete. Metabolismoa ez ezik barruko organoei ere eragiten die. Anorexia edo bulimia ondorio bat da, baina askori hilerokoa erretiratzen zaie eta horrek umeak edukitzeko arazoak ere sortu ditzake. Dieta orekatu bat ez eramateak uste baino kalte gehiago eragin ditzake.

Dietista / www.goiena.net

## Halaxe erantzun digute

### Lan erreformak kontratu berri bat sortu nahi du, eta kaleratzea merkatu. Zer deritzozu neurri horri?



**JON GARATE** | LAB SINDIKATUA

Ez da 1. erreforma eta esperientziak erakutsi digu enpresaburuei botere handiagoa emateko izaten direla. Gaur egun ere nahiko merkea da langile bat kaleratzea. Gure beldurra da nola egingo den erreforma hori, UGT eta CCOO sinatzeko gertu daudela entzuten da-eta, baina zeren truke?



**MAITE ALISTE** | UGT SINDIKATUA

Aberrazio hutsa da kaleratzea, eta, zoritxarrez, merkea eta erraza da gaur egun. Merkatzeak ez du enplegua sustatuko. Gaur egun badago kaleratze merke-askea eta malgutasuna lanean, eta lan merkatu ezegonkorraren emaitza dira. Soluzioa kontratazio prekarioa salatzea da.



**IÑAKI URIBARRI** | ESK SINDIKATUA

Lanaren ezegonkortasunaren eta behin-behinekotasunaren kontra egiteko aldi baterako lan kontratuen iruzurrezko erabilera borrokatu behar da, eta enpresaburuak kontratu finkoak erabiltzera derrigortu. Kaleratzea merkatzea eta kontratu berria sortzea ezegonkortasunaren alde egitea da.



**EGOITZ ITURBE** | ELA SINDIKATUA

Langileen egoera okertzeko izan dira orain arteko erreforma guztiak. Ezegonkortasuna amaitzea da gure aldarrikapena, baina erreformak bultzatu egiten du hori, sindikatu batzuen laguntzarekin. Zerbait egiteko aukera dugun neurrian, mobilizazioen bitartez egingo dugu.

## Egunkarietako harribitxiak

**MUNDUKO ZAZPI MIRARI BERRIEN BILA**

Gizeh piramidea, Babiloniako lorategi dilindariak, Rodasko kolosoa, Artemisaren tenplua, Halicarnasoren mausoleoa eta Zeusen estatua dira munduko zazpi mirariak. Bada, bakarra geratzen da: Gizeh piramidea. Hala, XXI. mendeko mirari berriak bozka daitezke *www.new7wonders.org* helbidean.

**'Gara'**
2006-03-05


El siglo XXI busca sus nuevas siete maravillas del mundo

**ALEMANIA, 2006KO MUNDUKO SEXU KOPA**

Elena Valencianok, Espainiako Alderdi Sozialistako europarlamentariak, idatzitako artikulua jaso zuen atzo *Berria*-k. Udan jokatuko den Munduko Futbol Koparen itzalpean, Alemaniara milaka emakume prostituitzera eroango dituztela salatzen du idatzian. Halaxe dio: "Aurreikuspenen arabera haraino joango diren 36 milioi pertsonendako eskaintza erakargarriak egiten hasi dira bidaia agentziak. Futbol-zale horien artean gehienek ez dakite, ordea, Europa erdialdeko eta ekialdeko eta Afrika iparraldeko 40.000 emakume ere espero dituztela Alemanian data horietarako, Emakume Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Koalizioaren eta zenbait erakunde espezializaturen arabera, eta prostituitzera joango direla.

**'Berria'**
2006-03-05


Alemania, 2006ko Munduko Sexu Kopa

## Tira, tira...




**Martintxo** 'Berria' | 2006-III-05

## Zorroztailea



# Oscar heterodoxoak

*Hau al da zine amerikarra? Europako kritikariek aurtengo Oscar sarietan lehian arituko diren filmak goraipatzen dituzten bitartean, Estatu Batuetan Hollywoodeko aurtengo uztak kritika oso gogorrak jaso ditu. "Argi dago film hauek ez direla amerikarron gustukoak", esan dute batzuek, AEBetako aurtengo audientzia-kopuruak kontuan hartuz.*

**'El País'** | 2006-03-04

Juan Luis Azkarate

AEBetan hiru urte eman zituen lagun batek horrela definitzen ditu estatubatuarrak: berritsuak, sinpatikoak eta superfizialak, oso superfizialak. Azken ezaugarri hau, azalkeria, kontuan hartuz, ez da harritzekoa aurtengo Hollywoodeko uzta hain gutxi gustatu izana AEBetan, eta hainbeste Europan eta adituen artean. Aurtengo filmik amerikarrena, *King Kong*, Zeelanda Berriko zuzendari batek egin du, Peter Jacksonek eta, beste guztiak, oso heterodoxoak dira Hollywooderako. Aurten efektu bereziek eta ikusgarritasun hutsalak politikari eta kritika sozialari lekukoa eman diote, eta kalitate handiko filmak ibili dira norgehiagoka Oscarren gauean.

*Brokeback Mountain*ek cowboyen mitoa hankaz gora jarri du. Homosexualitatea *Capote* filmean ere presente dago, Truman Capote idazle gay, alkoholiko eta apartaren gaineko pelikulan. *Crash* noraezean dabilen gizarte arrazista eta beldurtiaren erretratu gordina dugu. Spielbergerek bi alde ditu, eta alde politikoa erakusten duenean, bere film onenak eskaintzen ditu, *Munich* kasu. Zine politikoa ere, AEBetako ortodoxiaren kontrakoa, alegia, Clooney galai heterodoxoaren *Good night and good luck* filmean.

Heterodoxoen artean heterodoxoena, hala ere, *Paradise now*. Film honek Tel Aviven ekintza suizida bat egitear dauden bi gazte palestinarren atentatuaren aurreko 48 orduak erakusten ditu, eta ingelesez besteko film onenaren sarietan egongo da, Palestina ordezkatuz.

Bart banatu ziren Oscarrak. Batak zein besteak irabazita ere, aurtengo Oscarretako gaua, berezi samarra. Edozeinek irabazita ere...

**"Lagun batek hala definitzen ditu estatubatuarrak: berritsuak, sinpatikoak eta superfizialak, oso superfizialak"**

**"Azalkeria kontuan hartuz, ez da harritzekoa aurtengo Hollywoodeko uzta hain gutxi gustatu izana AEBetan"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Gara'

**ERTZAINTZAREN JARRERA**

Presoek jasaten duten egoera latza eta Estatuak eragindako biktimek jasaten duten utzikeria hitz gogorrekin salatu ondoren, nola bidal daiteke Ertzaintza hildakoei azken agurra eman nahi dutenak erasotzera? Gaur Montxo Doral sarjentua gogoratuko dute. Angulo eta Sainzen senide eta kideek pairatu behar izan duten indarkeria arrisku barik.

**Editoriala**
2006-03-05

### 'Berria'

**DOLU-DEI**

Emakume zahar-ezindua, Gasteizeko San Frantzizko elizaren ondo-ondoan bizi baita, sarraskiaz gogoratzen dituenak kontatu dizkio kazetari bati. "Elizako kanpaien hotsak ematen dit euri den ala haizete. Duela 30 urteko goiz hartan, aldiz, kanpaiek dolua zuten albiste. Entzuten? egunotan ere kanpaiok dolua dute albiste".

**Anjel Lertxundi**
2006-03-05

### 'Deia'

**KAFKIARRA, BAINA BENETAKOA**

Talde antiterroristako 20tik gora guardia zibil Eric Bertranen etxera sartu eta. Atxilotu egin zuten enpresa handietara mezu elektronikoak bidaltzeagatik. Mezuotan Fenix ejerzitoaren (Harry Potterren liburuetan oinarritua) izenean produktu guztiak katalanez etiketatzeko exijitzen zien. Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan zuen.

**Editoriala**
2006-03-05

### 'El Mundo'

**BUSH, PAKISTAN ETA INDIA**

Indian akordio garrantzitsua itxi zuen: gai nuklearretan kooperatuko dute. Hala, Indiak AEBen teknologiara jo ahalko du eta trukean Indiak lagako dio Bushi bere programa zibila ikuskatzen noiz edo noiz. Akordio positiboa da Indiarentzat. Batetik, kontrol atomikoaren nazioarteko sisteman sartuko da eta duten energia beharra txikitu egingo du.

**Editoriala**
2006-03-05

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Erredakzioa** Marijo Deogracias, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel eta Larraitz Zeberio.

**Jatorrizko diseinua** Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Jon Iraegi | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Presidentea** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KIROLA

• Saskibaloian, Mugarri Alkesak mendean hartu ditu asteburuko bi arerioak | 15
• 58 gazte lehiatu ziren atzo, domeka, Aretxabaletako trialsin proban | 17



Joxerra Eskibel eskalatzaile eskoriatzarra Patagoniako Paine dorreetan izan da | 19

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

ALOÑA MENDI
**2-0**
BERIO

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Elgarresta, Idigoras (Aramendi, 81. min.), Garai (Losada, 86. min.), Arregi I (Arregi II, 77.min.), Astola, Sanchez (Igartua, 45. min.), Astigarraga (Henry, 77. min.), Zubia, Olalde eta Lopez.

**Berio** | Castro, Olaizola, Oria, Saiz, Saiz, Ioritz, Astudillo (Garmendia, 70. min.), Ibañez (Jose Luis, 77. min.), Carrion (Monreal, 27. min.), Cabo eta Lazkano.

**Golak:** | 1-0 Roberto Idigoras (45. minutuan), 2-0 Idigoras.

**Epailea** | Morales jauna. Lan ona egin zuen.

**Bestelakoak** | Eguraldia kaxkarra izan arren, jendea hurbildu egin zen Azkoagainera Aloña ikustera.

## Bikain

**Txapeldunaren zortea**
Atsedenean markagailuan aurretik ziren etxekoak. Egindako jokoaren arabera, berdinketa izango zen justuena, baina 45. minutuan gol garrantzitsua lortu zuten.

## Kaskar

**Lehenengo zatia**
Partiduaren lehenengo minutuetan Aloñak zelai erdian baloi asko galdu zituen. Zelaiaren jabetza hartzea kosta egin zitzaien etxekoei. Hori dela eta, Beriok kontraerasoan min egin zuen.

## Esandakoak

"Azkoagainen jokatutako partidu guztiak irabaziz gero goian egongo gara. Etxean menderaezinak izan behar dugu".

**XABIER ELGARRESTA** | ALOÑAKO JOKALARIA

"Lehenengo 20 minutuetan galdu behar ez genituen baloiak galdu ditugu, Beriori kontraerasora ateratzen utziz".

**AITOR ORUETA** | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA



JOSETXO ARANTZABAL

Robertok egin zituen partiduko bi golak; oñatiarra lan ona egiten ari da azken partiduetan.

**FUTBOLA** | BERIOK ZAILTASUNAK JARRI ZIZKION LIDERRARI

# Aloñak gogor lan egin zuen Berio mendean hartzeko

*Aloñak ez zuen hutsik egin atzo Azkoagainen. Real Unionek galdu egin zuen etxean eta bien arteko aldea dagoeneko zazpi puntukoa da*

Arantzazu Ezkibel

Berio aurkari gogorra izan zen arren, Aloñak bere lana ongi egin zuen eta 2-0 nagusitu zitzaion talde donostiarrari. Oñatiarrek lider jarraitzen dute.

Partiduaren protagonista, beste behin, Roberto Idigoras izan zen. Jokalari oñatiarrak lortu zituen Aloñaren bi golak. Bat, gainera, zelai erditik eginiko jaurtiketa baten bidez sartu zuen. Gol ikusgarria izan zen, dudarik gabe, Azkoagainen ikusitakoa.

Lehenengo zatian, Aloñari kosta egin zitzaion jokoaren kontrola hartzea. Beriok atzealdean baloi asko lapurtu zituen, eta kontraerasoan etxekoei min handia eman. "Galdu behar ez genuen lekuan galdu ditugu baloiak: zelai erdian", adierazi zigun Aitor Oruetak partidu amaieran.

### GOL ERABAKIGARRIA

Atsedenerako gutxi falta zela, Roberto Idigorasek Aloña markagailuan aurretik jarri zuen. Ezker hegaletik, Mikel Sanchezek pase sakona egin zion Robertori eta hark sare barrura sartu zuen baloia. Beriok ere bere aukera izan zuen atsedena iritsi baino lehen. Donostiarrek partidua berdintzeko aukera izan zuten, baina jokaldia ez zen ezertan geratu.

**Atsedena gainean zela, Robertok gol garrantzitsua egin zuen Aloñarentzat**

**Zelai erditik egin zuen bigarren gola Robertok. Benetan maila ona ematen ari da oñatiarra**

Bigarren zatian, Aloñak hartu zuen jokoaren kontrola. Zelai erdian Xabier Elgarresta nagusi izan zen. Hala ere, Beriok ez zuen amore eman eta azkenera arte borrokatu zuen.

10. minutuan, Jon Igartuak area kanpotik jaurtitako falta atezainak gelditu zuen. Aukera polita izan zuen Aloñak bigarrena egiteko. Kostata, baina azkenean iritsi zen lasaitasuna emango zuen gola. Robertok zelai erditik atezaina aurreratuta zegoela ikusi, eta jaurti egin zuen. Hala, bigarrena egin zuen.

Garaipen horrekin, Aloñak 58 puntu ditu. Ordizia du atzetik 53rekin, eta Real Union atzean geratu da. Hala ere, Ordiziak partidu bat gutxiago du.

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Erikek egin zuen UDAren gola Irunen, zapatuan. Bigarren zatian izan zen, 17. minutuan.

# Partidu gogorra izan zen, eta UDAk irabazi egin zuen

REAL UNION
**0-1**
UDA

**Real Union** | Irurtziagena, Lasaga, Urtizberea, Irazoki, Fernandez, Jimenez, Torres (Madariaga, 75. min.), A. Perez (M. Perez, 45. min.), Arrondo, Azpiroz eta Uranga.

**UDA** | Eriz, Sanchez, Oxel, Iturbe, Unamuno, Arenaza, Cocho, Erik (Nuñez, 75. min.), Arriaga (Uribetxebarria, 86. min.), Rodriguez (Igartua, 71. min.) eta Espinosa (Gonzalez, 84. min.).

**Golak:** 0-1, Erik (77. min.).

**Epailea:** Asier Villar.

Asteleheneko Goienkaria

Txapelketa amaiera bikaina egiten ari dira Aretxabaletakoak. Asteburu honetan ere hiru puntu lortu dituzte eta beste urrats bat eman dute sailkapeneko goiko postuetarantz. Hain zuzen ere, UDA preferente mailako 3. sailkatua da orain.

Real Union talde irundarraren aurkako partiduan lortutako emaitzak ahalbidetu du UDAren azken aurrerapausoa. Zapatuan partidu gogorra jokatu zuten bi taldeek Gal Stadiumeko futbol zelaian, baina debagoiendarrendako izan zen azkenean garaipena. Denboraldi hasieran sailkapeneko jaun eta jabe izan zen Real Union, baina argi dago azken jardunaldietan behera egin dutela irundarrek.

**GOLA BIGARREN ZATIAN**

Etxean jokatzen zuen talde irundarrak, eta gogor lehiatu zen Aretxabaletakoen aurka. Bi taldeak izan ziren gol aukerak sortzeko gauza, baina ez zen markagailuan mugimendurik egon lehen zatian.

Erikok egin zuen gol bakarra, eta bigarren zatian izan zen, 77. minutuan. Hala, markagailuari eustea izan zen Aretxabaletakoen ahalegin nagusia handik aurrera. Baita lortu ere.

# Mondrak haizea izan zuen aurkari nagusi Orion

ORIOKO
**0-0**
MONDRA

A.G.

Haizea izan zen zapatuan protagonista Oriokoren eta Mondraren arteko lehian. Ez zen partidu ikusgarria izan. Haizearen indarrak asko zaildu zituen gauzak eta ez zen jokaldi ikusgarri askorik egiteko aukerarik izan Orioko futbol zelaian.

Lehenengo zatian debagoiendarrek izan zuten haizea alde. Arrasatekoek gehiago kontrolatu zuten jokoa eta etxeko taldeak baino gol aukera gehiago sortu zituzten. Tamalez, ez zuten golik egin.

Atsedenaren ostean Orioko taldearena izan zen gehienbat baloiaren kontrola. Azken minutuetan, ordea, behera etorri ziren eta Mondrarenak izan ziren baloiaren jabetza eta jokoa.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Real Union-UDA | 0-1 |
| Touring-Zestoa | 1-0 |
| Pasaia-Allerru | 1-1 |
| Orioko-Mondra | 0-0 |
| Aloña Mendi-Berio | 2-0 |
| Idiazabal-Irun 1902 | 1-3 |
| Beti Gazte-Anaitasuna | 1-1 |
| Mutriku-Hondarribia | 0-0 |
| Ordizia-Trintxerpe | 2-1 |
| Zarautz-Hernani | 1-1 |

**HURRENGOAK**

Zestoa-UDA
Allerru-Touring
Mondra-Pasaia
Berio-Orioko
Irun 1902-Aloña Mendi
Anaitasuna-Idiazabal
Hondarribia-Beti Gazte
Trintxerpe-Mutriku
Hernani-Ordizia
Zarautz-Real Union

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.**Aloña Mendi** | **58** | 27 | 18 | 5 | 4 | 56 | 30 |
| 2.**Ordizia** | **53** | 26 | 17 | 7 | 2 | 48 | 27 |
| 3.**UDA** | **51** | 27 | 15 | 6 | 6 | 48 | 24 |
| 4.**Real Union** | **51** | 27 | 16 | 8 | 3 | 53 | 31 |
| 5.**Zarautz** | **49** | 27 | 14 | 6 | 7 | 53 | 29 |
| 6.**Pasaia** | **45** | 27 | 11 | 4 | 12 | 55 | 38 |
| 7.**Trintxerpe** | **43** | 26 | 13 | 9 | 4 | 44 | 35 |
| 8.**Touring** | **41** | 27 | 12 | 10 | 5 | 37 | 34 |
| 9.**Mutriku** | **41** | 27 | 12 | 10 | 5 | 35 | 36 |
| 10.**Mondra** | **38** | 26 | 11 | 10 | 5 | 38 | 28 |
| 11.**Hondarribia** | **36** | 27 | 10 | 11 | 6 | 32 | 43 |
| 12.**Berio** | **34** | 27 | 9 | 11 | 7 | 37 | 40 |
| 13.**Hernani** | **34** | 27 | 9 | 11 | 7 | 37 | 41 |
| 14.**Zestoa** | **30** | 27 | 7 | 11 | 9 | 30 | 37 |
| 15.**Anaitasuna** | **29** | 26 | 8 | 13 | 5 | 29 | 38 |
| 16.**Irun 1902** | **27** | 27 | 7 | 14 | 6 | 38 | 54 |
| 17.**Idiazabal** | **27** | 27 | 6 | 12 | 9 | 28 | 45 |
| 18.**Orioko** | **21** | 27 | 4 | 14 | 9 | 33 | 62 |
| 19.**Beti Gazte** | **18** | 27 | 3 | 15 | 9 | 27 | 47 |
| 20.**Allerru** | **15** | 27 | 3 | 18 | 6 | 22 | 61 |

## Lehenengo erregionala

# Bergarak goiko postuetako lehian jarraitzen du

LEGAZPIKO GAZTETXEA
**0-5**
BERGARA

Asteleheneko Goienkaria

Bergarak ez zuen arazorik izan hiru puntuak etxera ekartzeko. Mahoneroek bost gol egin zizkieten zapatuan legazpiarrei. Hala, garaipen horrekin, Josu Zubiaren taldeak sailkapeneko goiko postuetan jarraitzen du igoera txartela eskuratzeko lehian.

**BAT GUTXIAGOREKIN**

Bergarak ia partidu guztia jokalari bat gutxiagorekin jokatu zuen. Izan ere, Dovao, beste behin, kaleratua izan zen lehenengo zatian. Hala ere, talde mahoneroak aurrera egin zuen eta erraztasun osoz irabazi zuen.

Lehenengo zatian, bergararrek haizea kontra izan zuten arren markagailuan aurre hartzea lortu zuten. Korner batean, Urteagak partiduko lehenengo gola egin zuen, eta atsedenerako gutxi falta zela, Imanolek bergararren bigarren gola egin zuen.

Legazpiarren jokoa baloi luzeetan oinarritu zen. Bergararrek, berriz, zelai erdiaren jabetza hartu zuten eta baloia ongi mugitzeaz arduratu ziren. Horrela, 2. zatian Asierrek, Imanolek eta Canasek gol bana egin zuten.

Josu Zubiaren esanetan, legazpiarrek talde kaxkarra zelairatu zuten. Etxekoek agerian utzi zuten zergatik dauden sailkapeneko azken postuan. Bergarak datorren astean Elgoibarren bisita jasoko du. Partidu gogorra izango da, Elgoibarkoak 6. postuan daude-eta.

## Nesken txapelketa



JOSETXO ARANTZABAL

**ALOÑA MENDIK 4-0 IRABAZI ZION ELGOIBARRI**

Aloñak arazo barik menderatu zuen Elgoibar. Lehenengo zatian, haizea alde izan zuten arren oñatiarrak ez ziren golik egiteko gai izan. Bigarrenean, berriz, Aloñak bi aurrelari ipini zituen, eta orduan iritsi ziren golak. Maitane Barbero, Miren Intxausti (2) eta Nuria izan ziren golegileak. Garaipen horrekin 2. postuan jarri dira oñatiarrak.

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Arrasate nagusitu zen derbian, baina lan eginda

*Bergara azken txanpa ona egiten ari da eta hortzak erakutsi zizkion Ford Mugarriri*




JOSETXO ARANTZABAL

Ford Mugarriko jokalariak ondo aritu ziren erasoan; eta bergararrek asko hobetu dute defentsan.

BERGARA
**26-36**
FORD MUGARRI

**Bergara** | Kapelastegi, Uribe (2), Agirre, Sanchez (3), Pozo, X. Najera (4), I. Najera, Errasti, Zabaleta (1), Lenisoro (1), Ugalde (2), Zangitu eta Plazaola (13).

**Ford Mugarri** | Egaña, Valle, Esquibel (5), E. Garcia, Urrutia (1), A. Garcia (2), Espeso, Murillo, Lonbide (1), Calleja (9), Altzelai (1), Isasmendi (11) eta Otegi (6).

**Golak bost minuturo:** 0-4, 3-9, 5-10, 7-13, 11-15, 14-17. Atsedena. 15-20, 19-24, 19-26, 21-30, 24-33 eta 26-36.

Larraitz Zeberio

Pozik egoteko moduan dira bi taldeak derbiaren ostean. Ford Mugarrik igoera txapelketari begira hain beharrezkoa zuen garaipena lortu du. Bergarak, berriz, ez zuen ezer jokoan, baina bai partidu ona egiteko aukera, eta horrela izan zen.

**BERGARAK ITXURA ONA**

Gaizki hasi ziren bergararrak eta zazpi puntuko aldea hartu zuten hasieran Arrasatekoek. Arandoren mutilek, ordea, ezin izan zioten joko mailari atsedenera arte eutsi eta Bergarak hiru golera jaitsi zuen aldea. Suspertze horretan lan handia egin zuten Kapelastegi eta Errasti atezainek zein Mikel Plazaola jokalariak ere. Bigarren zatia emozio handikoa izan zen. Ohikoa baino jende gehiago batu zen Labegaraietako kiroldegian, eta giroa berotu egin zen epaileek hartutako erabakien ondotik. Bi minutuko 10 kanporatze adierazi zitutzten: sei Arrasateko taldeari eta 4 Bergarakoari, hain zuzen ere.

**IGOERA TXAPELKETA ESKURA**

Arrasatekoen esku dago orain igoera txapelketan sartzea. Datorren astean liderra den Donibane Majestik dator Iturripera, eta irabaziz gero ziurtatua izango dute fase horretarako txartela.

Ez da partidu erraza izango, baina egia da pasaiatarrek ez dutela ezer jokoan.

• NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

# Azkenean puntu bat besterik ez

VERKOL ALOÑA
**17-17**
SESTAO

**Verkol Aloña** | Maialen, Maialen, Itsaso(3), Jone (3), Ainhoa (6), Shererezane, Miren, Maitane, Saioa (1), Erika (4) eta Eneritz.

**Sestao** | Veronica, Lorena, Ainhoa (5), Elisabeth (2), Yaiza, Maria (5), Cristina (6), Yolanda, Irati eta Natalia.

**Golak bost minuturo:** 0-1, 1-4, 3-6, 4-7, 6-8, 6-9. Atsedena. 7-10, 9-10, 12-10, 14-12, 16-14, 17-17.

Mireia Bikuña

Markagailuari buelta eman eta gero, Verkol Aloña ez zen gauza izan garaipena eskuratzeko. Sestaok berdinketaren gola azkeneko segundoan egin zuen.

Izan ere, Sestao izan zen hasieratik partiduari erritmoa jarri ziona. Atezain bizkaitarrak egindako geldiketei esker markagailuan aldea hartu zuten: 15. minutuan 3-6 ziren aurretik. Eta Sestaok abantaila horri eutsi zion atsedenera arte.

**PARTZIALA: 5-0**

Bigarren zatiaren hasieran Aloñak defentsa sendotu zuen eta Jone eta Ainhoaren golei esker, etxeko taldeak aldea hartu zuen markagailuan.

Hala, partidua amaitzeko bost minutu falta zirela bi goleko errenta zuen Verkol Aloñak. Baina ez zen gai izan alde horri eusteko. Azkenean, bada, denboraldiko hirugarren berdinketa Oñatiko taldearentzat.



JOSETXO ARANTZABAL

Jone Larrañagak hiru gol egin zituen.

• 1. TERRITORIALA

## Liderraren aurka 32-18 galdu zuen Aloñak

Asteleheneko Goienkaria

Aloñak liderraren aurka ezin izan zuen gehiago egin eta azkenean punturik gabe etorri behar izan zuten Pasaiatik atzo, domeka.

**JOKO ONA EGIN ZUEN OÑATIKO TALDEAK**

Iñigo Aranburu Aloñako entrenatzaileak esan digunez, partidu ona jokatu zuen talde oñatiarrak. Lehenengo zatian defentsan gogor aritu ziren eta markagailuari eustea lortu zuten.

Bigarrene zatian, berriz, Donibanek markagailuan alde handia egin zuen eta horri bueltа ematea ezinezkoa egin zitzaien Aloñako jokalariei. 32-18 itzuli ziren etxera.

• 2. TERRITORIALA

## Arrasatek berdindu egin du Zumarragan

A.G.

Berdinketarekin amaitu zen domeka goizean Arrasateko taldeak Zumarragan jokatutako partidua (28-28).

Tentsio handiko neurketa izan zen eta markagailuan ez zen tarte handirik zabaldu. Arrasatekoak, hori bai, hiru goleko atzerapenarekin iritsi ziren atsedenera.

Lehenengo zatiaren 10. minutuan, gainera, epaileak bi jokalari kanporatu zituen partidu osorako. Bata Urola taldeko jokalaria eta bestea Arrasateko Pello Olaberria. Azken txanpan lortu zuten berdintzea Arrasateko taldekoek.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Verkol Aloña-Sestao | 17-17 |
| **LEHENENGO TERRITORIALA** | |
| Bergara-Ford Mugarri | 26-36 |
| Donibane-Arrikrutz Aloñako Kobak | 32-18 |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Urola-Arrasate Esku Baloi | 28-28 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Bergara-Aloña Mendi | 37-26 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Bergara-La Salle Legazpi | 18-14 |
| Verkol Aloña | atsedena |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Gatz Museoa Jakion-Ordizia | 26-16 |
| Bidasoa Irun-Aloña Mendi | 23-24 |

• LEHENENGO MAILA, IGOERA TXAPELKETA

# Asteburu borobila egin du Arrasatek

*Mugarri Alkesak lan saio bikoitza izan du asteburuan baita beste bi garaipen lortu ere. Zornotza eta Urdaneta mendean hartu ditu*

**MUGARRI ALKESA**
**77-63**
**URDANETA**

**Mugarri Alkesa** | Gamarra (5), Domingo, Mallabi. (12), I. Biain (8), Beñat (4), Herzog (2), Kintana (6), Hernandez (4), Alartzia (16), Aranburu, I. Biain (18) eta Isasa (3).

**Urdaneta** | Hormaetxea (14), Hera (3), Gil (8), Paredes (8), Casado (13), I. Llamosas (2), A. Llamosas, Perez, Gonzalez, Galvan (5) eta Gutierrez (13).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 24-16. Bigarren laurdena 42-35. Hirugarren laurdena 59-44. Laugarren laurdena 77-63.

Larraitz Zeberio

Igoerako fasean ez dago kontrario samurrik eta Arrasateko taldeak bi hartu ditu mendean asteburu honetan. Ez da marka makala kontuan hartuta, gainera, Zornotzari 16 puntuko aldea atera ziola zapatuan eta Loiuko Urdaneta taldeari, berriz, 14 domekan.

**ALDAKETA UGARI**
Domekako Urdanetaren aurkako neurketa zen Arrasateko taldeari errespetu gehien sortzen ziona, baina hasieratik jarri ziren aurretik Zurututzarenak.

Partidu hasiera bikaina egin zuen etxeko taldeak eta laster batean zabaldu zuten zazpi puntuko aldea markagailuan. Kintanak, Alartziak, Gamarrak, Iñigo Biainek eta Mallabiabarrenak hartu zuten norgehiagokaren nondik norakoaren ardura hasiera batean. Azkenaldian ez bezala, ordea, entrenatzaileak aldaketa ugari egin zituen. Hala, horrenbeste minutu jokatzen ez dituzten jokalariek kantxan ikusi genituen atzo.

Bigarren laurdena izan zen Arrasatekoendako gogorrena. Ez ziren ohi bezain ondo aritu saskiratzeetan eta defentsa arazoak izan zituzten. Urdanetaren partziala hobea izan zen hamar minutu horietan.

Taldea, zorionez, forma onean irten zen atsedenaren ostean eta 15 puntura zabaldu zuten berriz ere aldea. Azken laurdena amaigabea egin zen Iturripen. Falta ugari egin zituzten bi taldeetako jokalariek eta jaurtiketa libre ugari adierazi zituzten epaileek.


JOSETXO ARANTZABAL
Gorka Alartziak lan handia egin zuen domekan. 16 puntu egin zituen.

**ZORNOTZARI 101-85**
Zornotzaren aurkako neurketan ere lan fina egin zuten Arrasatekoek. "oera txapelketan ez dago partidu errazik", adierazi zigun Mikel Biain jokalariak. "Guztiak lehiatu behar dira hasieratik amaierara arte eta asteburu honetan ondo atera zaizkigu gauzak".

Asteburu gogorra izan da Mugarri Alkesako jokalariendako, baina nekea ez da hainbeste sumatzen emaitzak aldekoak direnean. Orain zazpi partidu gelditzen zaizkie.

• SENIOR MUTILAK

## Candy taldeak 60-79 irabazi du asteburuan

A.G.

Bergarako taldea garaipenarekin itzuli da asteburuan Zarautzetik. 19 puntuko aldea lortu zuten David Urbina entrenatzailearen mutilek Plasticos Urteta taldearen kantxan partidu ona egin ondotik.

Hasieratik erakutsi zuten joko maila ona bergararrek bai erasoan zein defentsan eta kostaldekoek ez zuten markagailuari eusterik izan.

Taularen 5. postuan sailkatuta aurkitzen dira honenbestez Candy taldekoak. Bost partidu jokatu dituzte. Asteburu honetakoa euren 3. garaipena izan da.

• SENIOR NESKAK

## Aloñako neskek 24-53 galdu zuten etxean

Asteleheneko Goienkaria

Etxean galdu egin zuten oñatiarrek zapatuan. Partidua kontra jarri zitzaien hasieratik Aloñako neskei eta azkenean amore eman behar izan zuten legazpiarren aurrean.

Aloñak defentsan lan handia izan zuen legazpiarren jokoa gelditzen. Erasoan, berriz, saskiratze erabakigarrietan huts egin zuten Aloñakoek. Etxeko taldea jokoan ideia barik ibili zen eta partidu amaierara gogo barik iritsi ziren. 16 puntu besterik ez du Oñatiko taldeak.

• NESKEN BIGARREN MAILA

# Falta askotxo gauza onerako

**ESKORIATZA**
**35-55**
**SA HERMOSILLA**

**Eskoriatza** | Serrano, Labora (5), Gomez (2), Caceres (5), Murillo, Usabiaga (4), Soriano (4), Exposito (4), Etxerria (2), Agirrezabalaga (3) eta Alartzia (6).

**SA Hermosilla** | V. Alonso (6), Cañas (4), S. Alonso, Lahera (7), Banes (4), Balloguera (4), Prior (6), Jande, Arin, Martinez (7) eta Vilores (17).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 9-23. Bigarren laurdena 23-31. Hirugarren laurdena 28-42. Laugarren laurdena 35-55.

Larraitz Zeberio

Ondo hasi zuten norgehiagoka David Corbalen neskek. Errioxako taldeak, ordea, laster neutralizatu zuen lehenengo minututan etxekoek zabaldutako lau puntuko aldea.

Falta pertsonaletan egon zen gakoa zapatuan Intxaurtxuetan. Lehenengo laurdenean 15 jaurtiketa libre egiteko aukera izan zuten Hermosilla taldekoek, eta zortzi puntu lortu zituzten. Etxeko taldeak, berriz, bi aukera besterik ez zuen izan eta bietan kale egin zuten Corbalenak.

Errioxarren nagusitasuna handituz joan zen markagailuan laurdenetik laurdenera, eta amaierarako 20 puntuko aldea lortu zuten. Falta pertsonalengatik, gainera, kantxatik kanpo gelditu ziren Exposito (3. laurdenean) eta Gomez (4. laurdenean). Eskoriatzak itxura hobea eman nahi du txapelketako azken txanpan, baina horretarako lan handia egin beharko du.



JOSETXO ARANTZABAL
Azken laurdenean Ainhoa Alartziak emozio pixka bat eman zion partiduari.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| LEHENENGO MAILA | |
|---|---|
| Mugarri Alkesa-Zornotza | 101-85 |
| Mugarri Alkesa-Urdaneta | 77-63 |
| **NESKEN BIGARREN MAILA** | |
| Eskoriatza-Stave A. Hermosilla | 35-55 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Plasticos Urteta-Candy | 60-79 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Aloña Mendi-Andraitz | 24-53 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| STL Azkune-Aloña Mendi | 51-46 |
| La Salle-Mugarri Alkesa | 53-96 |
| Araneta-Errobide | 56-65 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Aloña Mendi-Aldapeta | 28-51 |
| Eskoriatza | atsedena |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Aloña Mendi | atsedena |
| Cafes Aitona B-Mugarri Alkesa | 32-75 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Eskoriatza-Ipar Project | atsedena |

# Eskola kirola

**BERGARA**

## "Kirolean jarduteaz gainera, ikustea ere oso gogoko dugu"

*Bergarako Labegaraieta kiroldegian eskubaloi partiduak jokatu zituzten*

*Sin Txan eta Betimu ligetako gaztetxoen txanda izan zen zapatu goizean kiroldegian*

*Benjamin talde horietako batzuetan neska-mutikoek elkarrekin jokatzen dute*

Geaxi Ezpeleta

Eskola kiroletik kanpo gaztetxoek kirola jarraitzen ote duten jakin nahi genuen, eta horren harira jardun genuen zapatu goizean eurekin berriketan. "ogokoen duguna jokatzea den arren, noizbehinka telebistaz ere jarraitzen dugu". Hori izan zen, oro har, neska zein mutikoen erantzuna. Akzioa dute neska-mutikoek gogokoen. Hara eta hona baloi edo pilotaren atzetik jardutea.

Horrela mintzatu zitzaizkigun, bederen, Bergarako Labegaraieta kiroldegian eskubaloian jokatzeko desiratzen zeuden gaztetxoak. San Martin A taldeko mutiko batek pozez zoratzen "guk partidu osoa jokatuko dugu"esan zigun, ordezko jokalaririk ez zutela eta.

**NESKEN PRESENTZIA MUTILENA BAINO BAXUAGOA**

Sin Txan eta Betimu ligetako jokalariak benjamin mailakoak dira. Eta talde horietako batzuetan neska-mutikoek elkarrekin jokatzen dute. Hala ere, aipatzekoa da jokalari gehienak mutikoak direla. Neskatilen kopurua baxuagoa zela argi ikusi zen zapatuko partiduetan.

Edozelan ere, neskatilek kementsu eta gogotsu jardun zuten, eta ez ziren kikildu mutikoen aurrean.



GEAXI EZPELETA

**Antzuola A.** Aiora, Olatz, Mariñe, Ane, Juan Manuel, Iker eta Mikel etorri ziren zapatuan Antzuolatik eskubaloian jokatzera.



GEAXI EZPELETA

**Mariaren Lagundia B.** Jon, Aitor, Jokin, Unai, Paul, Izar, Christian, Borja, Mikel, Idoia eta Amaia.



GEAXI EZPELETA

**Aranzadi 1.** Semark, Paulo, Jon, Iker, Andoni, Iñaki, Martin eta Maider dira argazkiko neska-mutikoak.



GEAXI EZPELETA

**San Martin A.** Xabat, Josu, Joseba, Gorka F. eta Gorka I. azaldu ziren zapatuko partidua jokatzera.

**• GAZTETXOEK KIROLEAN JARDUTEAZ GAIN IKUSTEA ERE GOGOKO DUTE**



**MIKEL ETA IZAR |**
MARIAREN LAGUNDIA B

"Guri asko gustatzen zaigu kirola eta telebistaz jarraitzen ditugu partidu batzuk. Batez ere futbol eta saskibaloi partiduak ikustea dugu gogoko"



**BORJA |**
MARIAREN LAGUNDIA B

"Gehien futbola jarraitzen dudan arren, kirol gehiago ere gustuko ditut: eskubaloia, saskibaloia...".



**MARTIN ETA MAIDER |**
ARANZADI 1

"Kirolean jarduteaz gain, ikustea ere gogoko dugu. Batzuetan telebistan ikusten ditugu futbol, saskibaloi eta pilota partiduak. Hala ere, guretzat ikusteko interesgarriena futbola da".



**BRAIAN, PAULO ETA SEMARK |**
ARANZADI 1

"Asko gustatzen zaigu guri kirola. Gogokoen duguna jokatzea den arren noizbehinka telebistaz ere jarraitzen dugu. Gehien futbola ikusten dugu, Realaren partiduak".

# Iruditan



JOSETXO ARANTZABAL

**Zikloturista irteera.** Debagoieneko Zikloturista Taldeak atzo, domeka, egin zuen denboraldiko lehen irteera. Goizeko 10etan, 15 bat lagun abiatu ziren Arrasateko egoitzatik. 40 kilometroko ibilbidea egin zuten elkarrekin, eta, tradizioari eutsiz, Dorletako Amari lore-eskaintza egin zioten, urtero egiten duten moduan.



JOSETXO ARANTZABAL

**Gipuzkoako Txapelketa.** 58 parte-hartzaile elkartu ziren atzo Aretxabaletako trialsin proban. Unai Zuntzunegi, Aitor Murua eta Itziar Murua aretxabaletarrak lehenengo sailkatu ziren euren mailetan.



JOSETXO ARANTZABAL

**Areto Futbola.** Aloñak 2-2 berdindu zuen San Jorgeren aurka. Etxekoak markagailuan bi aldiz aurreratu ziren arren, azkenean garaipenak ihes egin zien.



JOSETXO ARANTZABAL

**UDA Mercedes Benz 2-ComyTienda 2.** Donostiarrak aurreratu ziren, 0-2, baina berdindu egin zuen UDAk. Pena da bukaerako penaltia huts egitea!



JOSETXO ARANTZABAL

**Pilota.** Olaizola II.ak eta Zearrak finalerako txartela eskuratu dute Olaizola I.ari eta Otxandorenari 22-15 irabazita. Zearra atzealdean oso seguru ibili zen. Bizkaitarrak tanto bakarra egin zuen eta bi galdu. Goizuetako aurrelariak, berriz, hamar egin eta bi galdu zituen. Finala Irujo eta Eulateren aurka jokatuko dute.

LEHENENGO MAILA

**DIEGO GARTZIA** | ARRASATEARRA, REAL MADRILGO ZALEA

# "Munduko Txapelketan oso ondo ibiliko da Ronaldo"

Xabier Urtzelai

**Bere garaian Camachok egindako gauza bera egin du Florentinok, hanka egin, alegia.**

Nire ustez arrazoia eman dio Camachori. Florentinok hartutako erabakiak erakutsi du zelan dagoen Real Madril taldea, bai zelaian eta baita aldagelan ere. Raulek Ronaldori atentzioa deitu izana, Roberto Carlosek presidente ohiaren gainean egindako adierazpenak...

**Nork agintzen du talde zurian?**

Presidenteak izan ezik, gainerako guztiek. Bistan da jokalarien artean hainbat taldetxo daudela. Raul eta beste hainbat alde batetik, brasildarrak bestetik...

**Atletico de Madril taldeari irabazita, bakean daude Bernabeuko zaleak eta jokalariak?**

Ez dut uste. Telebistaz ikusi nuen derbia, eta jokalariak zelairatu aurretik topera jarri zuten megafonia, zaleen erreakzioa ez entzuteko. Batzuek txistu egin zuten, eta beste batzuk txalo; baina, txistuak gehiago izan ziren.

**Egunkariek diote Cassanok ahaztarazi zuela Ronaldo. Asko esatea da hori.**

Bistan dagoena da kluba Ronaldoren irteera prestatzen dabilela; eta, derbirako kanpoan uztea izan da lehenengo erabakia. Dagoeneko hasi dira entzuten Italiako hainbat talde atzetik dabiltzala dioten zurrumurruak. Ronaldo aurten ez dabil ezer ere egiten, baina seguru nago Munduko Txapelketan oso ondo ibiliko dela, hori komeni zaio-eta. Munduko aurrelari onena da Ronaldo, baina gura duenean.



XABIER URTZELAI

"Ez dut uste Arsenali irabaziko diogunik, baina ez dut itxaropena galtzen".

**Talde zuria alde batera utzita, jardunaldi negargarria izan da talde euskaldunendako.**

Alavesen porrota ez da harrigarria. Ondo dakigu taldean ze giro dagoen, eta horrek eragina du jokalariengan. Alaves zirkoa da, eta Piterman pailazoa. Osasunak eta Athleticek ere galdu egin dute. Ez dut uste nafarrak Txapeldunen Ligara sailkatuko direnik, baina bai UEFA txapelketara.

Realari dagokionez, gain-gainean ditu jaitsiera postuak. Zenbat aldiz hasi da aurten Reala irabazten, eta kontrarioak markagailuari buelta eman? Hiru euskal talde dabiltza suarekin jokatzen, eta azkenean, norbait erre egingo da.

> **"Hiru euskal talde dabiltza suarekin jolasten; norbait erre egingo da"**

## Harmailatik

# Belauntzia noraezean



Xabier Urtzelai

**Zulatuta.** Volvo Ocean Race proban, Xabi Fernandez gipuzkoarrak eta *Movistar*-eko gainontzeko tripulazioak larrialdiko geldialdia egin behar izan dute Ushuaian. Zulatu egin zaie belauntzia, eta noraezean, aurrera egin ezinda, konponketa lanak egitera geratu behar izan dira.

Atzo, Realak ere zulatutako belauntziaren itxura eman zuen. Taldea noraezean, Sevillan gertatu moduan, Zaragozaren kontra ere zaleek ez zuten jakin izan talde txuri-urdinak zertara jokatu zuen. Konpontze lanak egiteko Realak Coruñako portuan egingo du datorren zapatuan geldialdia. Eta, bistan da badagoela zer konpondu.

**Eta, zuloa non?** Guztion ahotan dago Realaren defentsa, hor ei dago benetako zuloa. Nabarmena da, baina, taldeak beste leku batzuetan egiten duela kale. Erdiko zelaian baloiak galdu baino egiten ez direnean errazagoa da defentsa ezustean harrapatzea. Alde horretatik, datu bat: Zapaterrek eta Movillak osatu zuten Zaragozako erdiko zelaia. Bi jokalari horien artean 12 baloi errekuperatu zituzten, eta 14 galdu. Viafara eta Mikel Alonso izan ziren Realaren bizkarrezurra. Horiek ere 12 baloi errekuperatu zituzten, baina 24 alditan galdu zuten baloia. Eta horri gehitu Novok edo Skoubok egindakoa. Nihatek, berriz, ez galdu eta ez errekuperatu, ezer ere ez.

**Aldaketak.** Atzo, norgehiagoka amaitutakoan lagun batek egindako gogoeta: "Arkonadak lehenengo partiduan Bakeroren eta Etxarriren laguntza izan zuen: poltsikoko telefonoekin berbetan, harmailetatik jokalariak zelan zeuden jarraitzen... Eta orain?". Atzo, egoera zuzentzeko aldaketa bakarra egin zuen Arkonadak.

⏶

**Haritz Aduritz**
Bigarren Mailatik etorrita ere, jokalari hori erakusten dabil Lehenengo Mailan jokatzeko maila daukala. Talde zuri-gorriak asmatu egin du fitxaketa horrekin.

⏷

**Anoetako hainbat zale**
Norgehiagoka hasi eta 12. segundoan ukitu zuen Rekartek lehenengoz baloia; eta, txistuak entzun zituen. Zale horiek hobe daude Anoetatik urrun, gurago ditut euren eserlekuak hutsik.

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Sevilla-Athletic | 2-1 |
| Malaga-Valentzia | 0-0 |
| Racing-Mallorca | 0-0 |
| Getafe-Betis | 1-0 |
| Reala-Zaragoza | 1-3 |
| Celta-Osasuna | 2-0 |
| Cadiz-Spanyol | 2-0 |
| Vila-real-Alaves | 3-2 |
| R.Madril-Atletico | 2-1 |
| Bartzelona-Deportivo | 3-2 |

**HURRENGOAK**

- Osasuna-Bartzelona
- Deportivo-Reala
- Zaragoza-Getafe
- Betis-Malaga
- Valentzia-R.Madril
- Atletico-Racing
- Mallorca-Vila-real
- Alaves-Sevilla
- Athletic-Cadiz
- Espanyol-Celta

**SAILKAPENA**

| | | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | **Bartzelona** | **61** | 26 | 19 | 3 | 4 | 63 | 23 |
| 2. | **R.Madril** | **51** | 26 | 16 | 7 | 3 | 50 | 26 |
| 3. | **Valentzia** | **51** | 26 | 14 | 3 | 9 | 37 | 21 |
| 4. | **Osasuna** | **46** | 26 | 14 | 8 | 4 | 33 | 29 |
| 5. | **Celta** | **45** | 26 | 14 | 9 | 3 | 29 | 25 |
| 6. | **Vila-real** | **42** | 26 | 11 | 6 | 9 | 36 | 25 |
| 7. | **Sevilla** | **41** | 26 | 12 | 8 | 5 | 32 | 26 |
| 8. | **Deportivo** | **40** | 26 | 11 | 8 | 7 | 36 | 30 |
| 9. | **Atletico** | **38** | 26 | 10 | 8 | 8 | 36 | 25 |
| 10. | **Zaragoza** | **36** | 26 | 8 | 6 | 12 | 36 | 35 |
| 11. | **Getafe** | **34** | 26 | 9 | 10 | 7 | 34 | 33 |
| 12. | **Racing** | **29** | 26 | 6 | 9 | 11 | 23 | 29 |
| 13. | **Espanyol** | **27** | 26 | 7 | 13 | 6 | 25 | 41 |
| 14. | **Mallorca** | **26** | 26 | 6 | 12 | 8 | 26 | 41 |
| 15. | **Betis** | **25** | 26 | 6 | 13 | 7 | 23 | 38 |
| 16. | **Cadiz** | **25** | 26 | 6 | 13 | 7 | 20 | 35 |
| 17. | **Reala** | **25** | 26 | 7 | 15 | 4 | 34 | 51 |
| 18. | **Athletic** | **23** | 26 | 5 | 12 | 8 | 27 | 35 |
| 19. | **Alaves** | **23** | 26 | 5 | 13 | 8 | 28 | 44 |
| 20. | **Malaga** | **21** | 26 | 5 | 15 | 6 | 28 | 44 |

Kiniela

**KINIELA**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | **Vila-real-Alaves** | 1 |
| 2. | **Sevilla-Athletic** | 1 |
| 3. | **Cadiz-Espanyol** | 1 |
| 4. | **Celta-Osasuna** | 1 |
| 5. | **Bartzelona-Deportivo** | 1 |
| 6. | **Reala-Zaragoza** | 2 |
| 7. | **Getafe-Betis** | 1 |
| 8. | **Malaga-Valentzia** | X |
| 9. | **Racing-Mallorca** | X |
| 10. | **Levante-Gimnastic** | X |
| 11. | **Racing Ferrol-Murtzia** | X |
| 12. | **Tenerife-Castellon** | X |
| 13. | **Sporting-Almeria** | 1 |
| 14. | **Lleida-Elche** | X |
| 15. | **R.Madril - Atletico** | 1 |

## Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Joxerra Eskibel eskoriatzarrak eskalatzea du gustuko eta munduko hainbat lekutan ibilitakoa da. Kaliforniako Yosemite parkean, Perun, Patagonian, Pakistanen, Nepalen, Madagaskarren eta Marokon, besteak beste. Berriki Patagoniako klasikoetako bat eskalatu du: Paineko Erdiko Dorrearen Bonington-Whillans izeneko bidea (650 m 6b/A1), hain zuzen ere. Bi aste pasatxo egon zen kanpamenduan Iñaki Ruiz bidaia-lagunarekin batera, haize bortitzak dorrea eskalatzeko aukera noiz emango zain.

**JOXERRA ESKIBEL** | ESKALATZAILE ESKORIATZARRA

# "Patagoniako lautadan ikusgarriak dira benetan Paineko granitozko hiru dorreak"

Larraitz Zeberio

**Paineko Erdiko Dorrearen Bonington-Whillans bidea eskalatu berri duzu. Zergatik bide hori?**

Erdiko dorrea da dauden hiruren artean dotoreena. Igotzeko bide asko ditu, baina Bonington-Whillans da ospetsuena. Ez da errazena, baina bai gehienek erabiltzen dutena. Azkar igotzeko biderik onena da.

**Eta Patagoniaraino. Aukeraketa hori nolatan izan da?**

Gabonetan eskalatu nahi izanez gero Patagonia da tokirik aproposena. Oso hegoaldean dago eta egunak luzeak dira sasoi horretan. Goizeko 5etan irteten da eguzkia eta gaueko 22etan sartzen.

**Bi aste pasatxo egin zenituzten han, tontorrera igotzeko aukera noiz sortuko zain. Sasoi aproposean joan zineten, baina eguraldia ez zenuten lagun izan.**

Eguraldi ona egiten duenean oso ona egiten du, baina haizeak gogor jotzen du gehienetan. Aukera noiz suertatu zain egoten gara han eskalatzaileak. Gainera, ez dakizu sekula eguraldi onak zenbat iraungo duen.

Gu bi aste egon ginen zain. Hilabeteko epearekin joan ginen eta gero eta egun gutxiago gelditzen zitzaizkigun. Saiakera egitea erabaki genuen urtarrilaren 17an, eta tontorrera iritsi ginen.

**Eta nolakoak dira bi asteko itxaronaldiak Patagoniako baso batean?**

(Barre). Denbora-pasa eman genuen denbora hura. Goizero begiratzen genuen zerura, baina igoerari ekitea arriskutsuegia zen. Xake partidak, gimnasia saioak… Jende gehiago ere bazegoen gure egoera berean, eta elkarrekin pasatzen genuen denbora.

**Zergatik dira hain erakargarriak dorre horiek?**

Arroka ona da, oso zorrotzak dira eta oso estetikoak. Haraino iritsi aurretik, gainera, panpa laua zeharkatu behar da. Ordu askoko bidea da eta bukaeran dorreak agertzen dira. Inpresio handia egiten dute.

Gero, egunero begiratzen dituzu eta ezin dituzu eskalatu. Erakargarriak dira, baina zapuztu ere egiten zaituzte.

**Eta eguraldi iragarpenak egiteko aukerarik ez dago han, ezta?**

Orain arte ez da inon ere egon, baina teknologia berriekin gauzak aldatu egiten dira. Paine da Hego Amerikako bigarren jomuga turistikoa kirol ekintzak egiteko. Paine Dorreen azpiko aldean luxuzko hotela eraiki dute. Internet iritsi da haraino, baina gure kanpamendutik nahiko urrun zegoen. Gu zerura begira geunden beti.

**Nolakoa izan zen igoera?**

Goizaldeko bostetan abiatu ginen kanpamendutik. Hamarrak ziren arroka azpira iritsi eta eskalatzen hasi orduko. Haize gogorra zebilen eta ezin izan genituen bi luze librean eskalatu.

**Prestaketa lana oso serio hartzen duzu?**

Ez. Gustuko dudalako eskalatzen dut eta nire burua prestatzen dudan arren ez naiz gimnasioetan-eta askorik ibiltzen. Ez naiz oso serio prestatzen.

**Neguan nola moldatzen zara?**

Arrasaten eskalada-murru (pareta) oso ona dago eta aspaldian joan gabe egon banaiz ere, berriz hasi naiz. Neguan, gehienbat, izotzetan eskalatzen dut.

**Boulderra egiten duzu?**

Orain oso modan dago eta gustatzen zait, baina ez dut askorik egiten. Kilometro asko egin behar dira boulderra egiteko eta egun libre gutxi izaten ditut nik. Eskalatzera joateko erabiltzen ditut gehienetan.

**Eta inguru honetan non ibiltzen zara?**

Sarritan joaten naiz Araotzera, Oñatira. Eskalatzeko bi pertsona behar izaten dira eta Araotzen jende asko ibiltzen da. Bakarrik joanez gero beti aurkitzen duzu laguna eskalatzeko.

**Eskalada modan dago?**

Bai. Lehen, oso jende gutxik eskalatzen zuen. Orain, eskalada-murru asko zabaldu dira eta nabaritu egiten da. Lehen arrokan hasten ginen zuzenean. Orain, jendea urtetan eskalada-murruan ibili eta gero pasatzen da arrokara. Maila handia dute.

**Eskalada arriskutsua da?**

Kirol-eskalada, Araotzen egiten duguna segurua da. Ondo eginez gero ez dago arriskurik. Mendiko eskalada, ordea, ezberdina da. Garrantzitsua da zure maila zein den ondo jakitea eta arriskua zenbaterainokoa den ondo neurtzea.



LARRAITZ ZEBERIO

Joxerra Eskibel, Eskoriatzako Bolibar auzoko bere baserrian.

## Patagoniako klasikoetako bat eskalatu berri du

**Abenduaren 29an abiatu zen Txilerantz Joxerra Eskibel Iñaki Ruizekin batera. Dorreko bide klasikoetako bat aukeratu zuten gailurra egiteko; Chris Boningtonek eta Don Whillansek 1963an harkaitz ikusgarriaren mendebaldean ireki zutena (650 m 6b/A1).**

**Urtarrilaren 17an lortu zuten helburua zazpi ordu eta erdiko lanaren ostean.**



# Mª Jose Gilek bi urrezko domina eskuratu ditu Espainiako Txapelketan

*Atleta arrasatearrak beteranoen Espainiako txapelketan hartu zuen parte Oviedon. 1.500 metrotan, gainera, errekorra hautsi zuen Gilek*

Arantzazu Ezkibel

Bi urrezko domina eskuratu zituen Mª Jose Gil arrasatearrak Oviedon jokatutako Espainiako Beteranoen Txapelketan.

Mª Jose 65 urtetik gorakoen taldean aritu zen. 1.500 metroko lasterketan eta 3.000 metroko lasterketan hartu zuen parte arrasatearrak eta bietan urrea lortu zuen ibarreko atletak.

**ESPAINIAKO ERREKORRA**

1.500 metroko lasterketan, gainera, Espainiako errekorra hautsi zuen Mª Josek 9 minutu eta 27 segundoko markarekin.

Arrasateko atleta oso pozik zegoen egindakoarekin. Gogor entrenatzen omen du eta emaitzak hor daude. Oviedon bizitako giroa bikaina izan zela esan digu Fernando Zufiria Arrasateko atletismoko arduradunak.



ARTXIBOA

Mª Jose Gilek urtero hartzen du parte Espainiako Beteranoen Txapelketan.

• Bertso afariak egin dituzte Aretxabaletan eta Bergarako Osintxu auzoan | 22
• Zelestino Uriarte Bediaren gaineko liburua prestatzen ari da Intxorta 1937 kultura elkartea | 26

'Munduko musikak' ikuskizuna egin zuen atzo Leizarra Musika Eskolak Aretxabaletan | 22

Atzo, domeka, *La calumnia* antzezlana egin zuten Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Fiorella Faltoyano da bi protagonistetako bat, eta hura taula gainean ikustea luxua da. 70eko hamarkada bukaera ezkero dihardu antzerkian, telebistan eta zineman lan ugari egiten. Trantsizio-garaian hasi zen lanean, espresio artistikoek eztanda egin eta zentsurari bizkarra ematen hasi zirenean, eta Espainiako zuzendarien hainbat belaunaldi ezagutu ditu. Iragan hartaz eta orainaz berba egin dugu harekin.

**FIORELLA FALTOYANO** | AKTOREA

# "Gaur egungo telebista programazioa patetikoa da, adimenari iraina egiten diote"



Uda aldera film bat egingo du Faltoyanok. Telebistan zerbait gustukoa eskaini ezkero

Iker Barandiaran

**Jatorri italiarra daukazu, baina Madrilen jaio eta bizi zara...**

Bai, aita Italiakoa zen eta ama galiziarra. Sasoi labur baten Erroman bizi izan nintzen, baina Espainian daukat bizimodua.

**Noiz erabaki zenuen aktore izatea? Familiatik zetorren?**

Familian ez dago beste aktorerik. Ardi beltz antzeko bat naiz. Ez nuen beste ezertarako balio. Eskolan pailazokeriak besterik ez nituen egiten, eta gurasoek erabaki zuten hobe zela pailazokeriak eginez gero dirua irabaztea. Horregatik, 14 urterekin Arte Dramatikoa ikasten hasi nintzen.

**Noiz izan zen zure debuta jendaurrean?**

17 urterekin Madrilen *La corte del faraon* musika-komedian esku hartu nuen.

**Eta zure lehen film garrantzitsua *Asignatura pendiente* izan zen.**

Bai. 27 urterekin egin nuen. Aurretik, Pedro Mario Herrero zuzendariarekin *Club de solteros* egin nuen, baina ez zuen halako oihartzunik izan. *Asignatura pendiente* izan zen paper protagonista izan nuen lehenengo filma, eta lan hark arrakasta izugarria izan zuen.

**Zelan gogoratzen duzu film hori? Eta zelan izan zenuen protagonista izateko aukera?**

Maitasun handiarekin, film hura ia gertakari soziologikoa izan zelako: trantsizio-garaia zen eta urte oso zailak ziren, egoera politikoa zela-eta oraindik arriskutsuak ziren gaiak ukitzen genituen. Hortaz, ez genekien espetxera eramango gintuzten edo arrakasta izango genuen. Eta azkenean, arrakasta handia izan genuen.

**Film hark ezagutzera eman zintuen, hortaz.**

Bai. Nik ordura arte telebistan lan asko egin nuen, baina ia ez nuen zinemarik egin, eta handik aurrera zinemako ate handiak zabaldu zizkidaten.

**Film haren zuzendari Jose Luis Garci aurretik ezagutzen zenuen?**

Ez. Filma egin aurretik ezagutu nuen, *Asignatura pendiente*-ko beste gidoilari Jose Maria Gonzalez Finde laguna nuelako. Ni aurrean nengoela, biak gidoia irakurtzen zebiltzan, emakume protagonista zein izango zen erabakitzen. Ni irrikan nengoen, eta azkenean niri eskaini zidaten paper hura.

**Zineman lan egiten hasi zinen trantsizio garaian, hain justu. Zineman ere bat-batean guztia borborrean egongo zen...**

Bai. Halako aldaketa-sasoi garrantzitsuan Espainiako Zinema Berria delakoa egiten hasi ginen. Errealitatearekin bat egiten zuen, gazteagoa eta zintzoagoa zen, eta gertatzen ari zena benetan islatzen zuen. Une oso polita eta, aldi berean, zaila eta arriskutsua izan zen.

**Zentsura gertutik bizi izan zenuten?**

Orduan ez genuen horrenbesteraino igarri, Espainian soka luzeagoa uzten hasi zirelako. Baina gogoan daukat bigarren filmak (*Solos en la madrugada*), Hego Amerikan oso ondo saldu zenak, Argentinan zentsura arazo handiak izan zituela, eta han estreinatzeko arazo larriak izan genituela militarren aldetik.

**Bestalde, zentsura arindu zenean, zuk ez zenuen Espainiako zinemako *destape*-an esku hartu, ezta?**

Ez nuen gura izan, baina indar handia izan zuen zinema hark. Beste barik, ez neukan interesik. Nik gurago nuen antzerkia, telebista eta bestelako filmak egin. Biluziren bat egin behar izan nuen, baina film serioagoetan eta bestelako gidoiekin. Sasoi batean *destape*-ko film asko egin zituzten eta haietako asko oso txarrak ziren.

**Film ugaritan lan egin duzu. Zer film gogoratzen duzu maitasunez?**

Hainbat. *Asignatura pendiente* horietako bat da, jakina; *La colmena*-ri maitasun handia diot; telebistarako film moduan errodatu genuen *La regenta*... Asko dira.

**Eta zein film zuzendarirekin ikasi duzu gehien?**

Mario Camusek asko eragin zuen nigan. Harekin *La colmena* eta *Despues del sueño* egin nituen. Oso gustuko dut, oso serioa, konprometitua eta berezia iruditzen zait. Fernando Mendez-Leiterekin ere oso gustura egin dut lan zineman, eta orain antzezlan honetan. Garci... Horiek ere asko dira.

**Zein zuzendarirekin gura izan zenuen lan egin baina ez zenuen lortu?**

Almodovarren lehenengo filmetan, esate baterako; oso film ausart, urratzaile eta dibertigarriak zirelako.

**70eko hamarkada bukaerako Espainiako zinema hura nostalgiaz gogoratzen duzu ala gaur egungoa hura besteko ona da?**

Une desberdinak dira. Gaur egun filmak hobeto eginak daude eta kalitate tekniko handiagoa dute, baina film oso onak eta oso txarrak daude, lehen gertatzen zen moduan. Horrez gain, egia da hemen egiten diren filmek AEBetan oihartzun handiagoa dutela. Europan lehen ere bagenuen irteera: Cannes-era betidanik joan gara eta kritika onak eta sariak jaso ditugu Carlos Saurarekin... *La colmena*-k Urrezko Hartza lortu zuen Berlinen. Baina aspaldian hemengo filmak atzerrian gehiago zabaltzen dira.

**Gaur egungo film zuzendarien ibilbidea jarraitzen duzu?**

Bai. Besteak beste, Fernando Leon de Aranoaren lanak oso gustuko ditut.

**Inoiz lan egin duzu Espainiatik kanpo? Italian, agian?**

Ez, Italian ez dut aukerarik izan. Sasoi baten Ingalaterran lan egin nuen BBC telebistarako telesail luze-luze baten, baina ez dut atzerrian zinemarik egin.

"Begi-bistan zegoen aktorea izango nintzela, umetan uneoro pailazokeriak egiten nituelako"

"Filma baino gehiago, gertakari soziologikoa izan zen 'Asignatura pendiente"

"Trantsizio-garaiko zinemak gertatzen ari zena benetan islatzen zuen. Zaila eta arriskutsua zen"

"Ez nuen 'destape'-an esku hartu gura izan, nahiz eta film serioagoren baten biluztu egin nintzen"

"Mario Camusekin asko ikasi nuen. Oso film konprometituak eta bereziak egin zituen"

"Almodovarren lehenengo filmetan lan egin izango nukeen, oso ausartak ziren"

"Egungo zuzendarietatik, Fernando Leon de Aranoaren filmak oso gustuko ditut"

"Argentinan filmak egiteko aukera izan nuen, baina gurago nuen hemengo sasoi berezia bizi"

"Nik ez nuen oso azkar izar bihurtu gura. Gurago dut lasaiago bizi izanda lan honi eutsi"

"Ezaguna izatea atsegina da, ez da famaren torturaren parekoa. Hori ez nuke gura"



JOSETXO ARANTZABAL

ere hartuko lukeela azaldu du.

Argentinan film batzuk egiteko aukera izan nuen, baina gure umea txikia zen. Gainera, hemen oso sasoi berezia bizi genuen eta gurago nuen hura bizi izan.

**Zer eman eta kendu dizu zure lanak?**

Kendu, ezer ez. Poztasun handiak eman dizkit: jende liluragarria ezagutu dut, bidaiak... Horrez gain, ezagun egin nau, baina ez famatu. Ezaguna izatea atsegina da, ez da famaren torturaren parekoa. Lanbide honek oso bizimodu ona eman dit. Nik bizitza osorako lanbide hau gura nuen, eta garrantzi handiagoa eman diot bizitza kalitatea izateari. Hortaz, lasaitasun handiz hartu dut. Ez dut jaso dudana baino gehiago eman. Asko jaso dut.

**Aktore lanean gazte hasi zinenez eta hainbat arlotan lan egiten duzunez, familia askotan gurasoek eta seme-alabek zu eta zure lanak ezagutzen dituzte...**

Bai, oso atsegina da. Nire helburuetako bat hori zen. Nik ez nuen gura oso azkar izar bihurtu eta gero gerokoak. Gurago nuen poliki-poliki lan eginez bizitza osoan lan honi eutsi. Baina egia da bitxia dela: gazteek telebistan edo antzerkian egindako azken lanengatik ezagutzen naute, eta beste askok aspaldi zineman egindakoengatik.

**Askotan esan ohi da antzerkia telebista eta zinema baino berehalakoagoa eta esker onekoagoa dela.**

Gauza batzuetan esker onekoa da. Egunero aldatzen doan lan bati aurre egin behar diozulako eta egun eta ikusle guztiak ez direlako berdinak izaten. Horrekin lotuta, ikuskizuna ondo doanean ikusleak alboan igartzea oso hunkigarria da. Zinema askoz hotzagoa da.

***La calumnia* antzezlaneko zuzendaria, Fernando Mendez-Leite, zure bikotekidea da. Erraza da bikotekidearekin lan egitea?**

(Barre). Cristina Higueras eta biok ikuskizunaren ekoizleak gara eta guk kontratatu genuen. Bikotekidearen araberakoa da. Fernandorekin lan egitea oso erraza da, bikotekidearendako eta baita gainontzekoendako ere. Harendako zailagoa izango zen, antzerkia zuzendu duen lehenengo aldia izan delako, baina niretzat oso atsegina izan da.

**Antzezlan hori bere sasoian oso polemikoa eta urratzailea izan zen AEBetan...**

Bai. Hain da hori horrela, ezen ezin izan zutela askatasunez estreinatu. Zentsuratu egin zuten.

**Eta zergatik aukeratu zenuten?**

Higuerasi eta bioi iruditu zitzaigun aspaldi idatzita egon arren gaurkotasun handia duela. Gainera, emakumezko bi pertsonaia liluragarri daude, eta orokorrean zazpi pertsonaiak oso interesgarriak dira. Horrez gain, orain arte bi komedia eginak genituen, eta drama bat egiteko gogoa geneukan. Ikuskizun aproposa da.

**Martxoaren 8aren ia bezpera da eta ikuskizunak emakumezkoen hainbat arazo islatzen ditu...**

Bai. Horrez guztiaz gain, Higuerasek eta biok lan asko egin dugu aurrera egiteko eta independenteak izateko. Emakumezkook beti egin dugu lan. Lehen, zoritxarrez, baldintza txarragoetan, baina poliki-poliki emakumeok merezitako onespena jasotzen hasi gara.

**Zer asmo daukazu orain?**

Madrilera *La calumnia* berriro eraman behar dugu, baina horren aurretik asmoa da udan film bat egitea. Telebistan zerbait interesgarria eskaintzen badidate, hartu egingo dut.

**Zer iritzi daukazu egungo telebista programazioaren gainean?**

(Barre). Ordubetez berba egin dezakegu. Patetikoa da. Telebista guztiak klonikoak dira, eta egun eta ordu berean zabor bera ematen dute. Ikusleen adimenari irain egiten diote.

"Higuerasek eta biok lan handia egin dugu aurrera egin eta independente izateko"

"Arlo askotan lan egin arren, garrantzia handiena eman diot bizitza kalitatea izateari"

## Ikusleak hunkitu egin zituen drama psikologikoa da *La calumnia*

**Jende asko batu zen atzo, domeka, Arrasateko Amaia antzokian *La calumnia* antzezlana ikusteko. Martari (Fiorella Faltoyano) eta Kareni (Cristina Higueras) gertatutakoaz egiten du berba. Nesken eskola bateko arduradunak dira eta Mary Tilford ikasleak bi emakumeon gainean esandako gezur baten ondotik eratorritakoak dira istorioaren ardatz.**

**Lesbianak direla dio neskatoak, eta modu horretan kalumniatuta ikasle barik geratuko dira. Epaiketa ere izango dute horregatik guztiagatik, eta orduan bakarrik onartuko dio Martak Kareni izkutuan izan bada ere maite duela. Drama psikologikoa da eta aktoreen lan onak ikusleak erabat hunkitzea lortu zuen. Dekoratua ere aipagarria da. Gutxitan ikusten dira halako dekoratu txukunak. Profesionaltasuna zerion *La calumnia*ri alde guztietatik.**

**Lillyam Ghellman estatubatuarrak aurreko mendearen lehenengo erdialdean idatzitako lana bada ere gaurkotasun handia du eta horrexegatik hain justu, aukeratu eta taularatu du taldeak. Emakumeen arteko maitasunaz berba egiten duelako zentsuratuta egon zen AEBtan.**





ANTZERKIA | **'ONGI IBILI' ANTZEZLANA TAULARATU ZUEN POK PRODUKZIOAK**

# Emakumeen egunerokotasunaz aritzeko aukera ematen du 'Ongi ibili' antzezlanak

**Non.** Oñatiko Santa Ana aretoan.
**Iraupena.** Ordu eta erdi luze.
**Zuzendaria eta testu egilea.** Aitzpea Goenaga.

Naiara Larrañaga

Tonu sotil baina zuzenean aritu ziren zapatuan Santa Ana aretoan Loli Astoreka, Olatz Beobide, Miren Gojenola eta Edi Naudi aktoreak. *Ondo ibili* antzezlanean hiru emakumezkoak, umetako lagunak, bidaian joan ziren etorkin arabiarra gidari dutela. Euren bizitzaz eta emakume legez dituzten ardurez hizketan jarri zituen Aitzpea Goenaga zuzendariak. Bata ezkondua eta ama, bestea ezkondua baina umeak izateari uko egin diona eta hirugarrena, gurasoen etxean bizi eta aita lehenengo eta orain ama zaintzen duena. Horiek hiru emakumeak; Naudo, berriz, gidaria.

**EMAKUMEEN ANTZERKIA**

